KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

KONTRATU MOTA:	**ZERBITZUAK**	
PROZEDURA:	**IREKIA**	
ERREGULAZIO HARMONIZATUARI LOTUTAKO KONTRATUA	**BA** ☐	**EZ** ☒
ERREKURTSO BEREZIARI LOTUTAKO KONTRATUA	**BA** ☐	**EZ** ☒

Izapidetzea ☒ **arrunta** ☐ **premiazkoa**

Izapidetze aurreratua ☐

Espedientearen kodea:
2021-KULT-003

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN ORRIAK

EZAUGARRIEN TAULA

1.- BOTERE ESLEITZAILEA	
Administrazio kontratugilea	KULTURNIETA S.A.
Kontratazio-organoa	Administrazio Kontseilua
Departamentua / Zerbitzu kudeatzailea	Sustapena
Dept./Zerbitzu kudeatzailearen helbidea	Sustapena
Posta elektronikoa	jmayor@urnieta.eus
Kontabilitate-bulegoa	Kontu-hartzailetza Departamentua

2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA:	http://www.contratacion.euskadi.eus/

3.- KONTRATUAREN XEDEA			
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa. - 1. LOTEA: Urnietako Udal Antzerki Tailerraren (UUAT) kudeaketa. - 2. LOTEA: Arte eta kultura ikastaroen kudeaketa.			
Código/s CPV: 92000000-1 Servicios de esparcimiento, culturales y deportivos.			
Loteka lizitatzeko aukera	BAI	**X**	
	EZ		

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA		
Prezioa zehazteko sistema	Unitateko prezioa	**X**
	Kontratuaren zati bat oroharreko prezioan	

KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

<table>
<tr><td></td><td>Kontratu osoa oroharreko prezioan</td><td></td></tr>
<tr><td>Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua
(BEZ barne)</td><td colspan="2">

1. LOTEA: UUAT.

	ZENBATEKOA/ORDUKO
LANGILE GASTUAK	27,21
GASTU OROKORRAK	21,85
IRABAZIA	3,92
BEZ	11,13
GUZTIRA	64,11

2. LOTEA: ARTE ETA KULTURA IKASTAROEN KUDEAKETA.

	ZENBATEKOA/ORDUKO
LANGILE GASTUAK	32,64
GASTU OROKORRAK	8,13
IRABAZIA	3,26
BEZ	9,25
GUZTIRA	53,28

2 loteei, egindako kalkulurako aplikatuko den Hitzarmen Kolektiboa “**AISIALDI HEZITZAILEAREN ETA ANIMAZIO SOZIOKULTURALAREN ESTATUKO III. HITZARMEN KOLEKTIBOA**”

</td></tr>
</table>

5.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA (BEZ KANPO)

- 1. LOTEA: UUAT.

Zenbatekoa: 17.166,64€, kontratu-bi urteri (2) dagokiona, gehi urtebeteko bi (2) luzapen.

- 2. LOTEA: ARTE ETA KULTURA IKASTAROEN KUDEAKETA.

Zenbatekoa: 47.555,70€, kontratu-bi urteri (2) dagokiona, gehi urtebeteko bi (2) luzapen.

6.- FINANTZIAZIOA	Ehunekoa
Kulturnieta SA	100

7.- URTEKOAK

EKITALDIA	AURREKONTU PARTIDAK	KOPURUA
2021	1 0410.227.334.10.01 2021	9.000

2021	1 0410.226.334.00.01 2021	1.350
2021	1 0410.227.334.00.04 2021	7.200

8.- GAUZATZEKO EPEA / IRAUPENA			
Kontratu-bi urte (2), gehi urtebeteko (2) luzapen.			
Epe partzialak	BAI		
	EZ	**X**	

9.- LUZAPENA		
BAI	**X**	Luzapenaren epea: urtebeteko (1) bi (2) luzapen
EZ		

10.- ORDAINTZEKO MODUA
Enpresa esleipendunak hilero faktura bat aurkeztuko du, zerbitzua zehaztuta. Enpresa esleipendunak aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta, horrez gain, langileei hileko soldatak ordaindu izana egiaztatzen duten egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

11.- BERME-EPEA				
BAI	**X**	Hilabete 1 kontratuari harrera formala eman eta hurrengo egunetik hasita.	EZ	

12.- JASOTZEKO ETA EMATEKO/GAUZATZEKO TOKIA
Urnietako udalerria

13.- ALDAERAK ONARTU AHAL IZATEA				
BAI		EZ DAGOKIO	**X**	

14.- EXEKUZIO-BALDINTZA BEREZIAK
Baldintza-agirien 36.2 klausulan ezarritakoak, erreferentzia berezia eginez hizkuntza-betebeharrei, Urnietako Udalak Berdintasuneko II. Planean genero-berdintasunaren alorrean onartuak dituen irizpideei eta gizon-emakumeen arteko berdintasunaren alorreko gainerako xedapenei. Baldintza hauek ez betetzea kontratua bertan behera uzteko nahikoa arrazoi izango da. **Euskara:** Enpresa esleipendunak ikastaroetako irakasle edo tailerreko zuzendari lanak burutzeko izendatzen dituen langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eta, esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko dute B-2 hizkuntza-gaitasuna zerbitzuaren arduradunak, gainerako langileek ahozkoan B-2 hizkuntza gaitasuna bete beharko dute. Beraz, zerbitzua materakoan ahozko harremanak euskaraz gauzatzeko ahalegina egingo dute.

Hots, enpresa esleipenduneko langileak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu-hartzaileak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera eta, bigarren kasu horretan, euskarari emango zaio lehentasuna.

Enpresa esleipendunak Udalarekin dituen ahozko harremanak euskaraz izango dira eta idatzizko dokumentazioa gutxienez euskaraz aurkeztuko da.

Emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean dauden baldintza bereziak

Kontratatutako enpresa edo pertsonak ez du inolako zigor irmorik eduki behar aukera-berdintasunaren alorreko lege- hauste larriengatik.

Kontratua gauzatu bitartean ekoizten diren euskarri guztietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du enpresa esleipendunak.

Zerbitzua eskaintzen den urte bakoitzaren amaieran memoria bat egin beharko da, kontratatutako zerbitzuen erabiltzaile edo onuradun diren pertsona kopuruari buruzko datuekin, sexuen arabera xehakatuak.

Tratuan eta programa guztietarako sarbidean emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko da.

Enpresa edo pertsona lehiatzaileak ekintza bereziak aplikatuko ditu kontratu honen bidez koordinatzen dituen zerbitzuak gauzatzeko orduan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari begira.

Kontratatutako langileek ez dute sexu- izaerako deliturik izango, eta ez dute inolako zigorrik izango emakumeen aurkako indarkeriagatik edo etxeko indarkeriagatik epai irmo baten ondorioz. Horretarako, sexu-izaerako deliturik egin ez izana frogatzen duen egiaztagiri bat aurkeztu beharko du.

15.- PREZIOEN BERRIKUSPENA				
BAI		EZ	**X**	

16.- BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN PROFESIONAL EDO TEKNIKOA

1) ENPRESA EDO LANBIDE ARLOKO BAIMENAK/GAIKUNTZAK (SPKLko 65. artikulua)

Bidezkoa da:	BAI	
	EZ	**X**

2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

- LOTE 1: URNIETAKO UDAL ANTZERKI TAILERRAREN (UUAT) KUDEAKETA.

Honela egiaztatuko da:

Kontratuak aipatzen duen eremuko urteko negozio-bolumena, hau da, antzerki taldeen kudeaketan edo kultur ikastaroen kudeaketan, azken hiru urteetan erabilgarri egon den ekitaldi onenari dagokionez, enpresaburuaren eratze-dataren edo jardueren hasieraren eta eskaintzen

aurkezpen-dataren arabera, kontratuaren urteko batez besteko balioaren **%70** izan beharko baita gutxienez. Urteko negozio-bolumena egiaztatzeko, Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailututako urteko kontuak aurkeztu beharko dira, eta erregistro horretan inskribatuta ez badago, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako kontuak aurkeztu beharko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuen kasuan, negozio-bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute.

- LOTE 2: ARTE ETA KULTURA IKASTAROEN KUDEAKETA.

Honela egiaztatuko da:

Kontratuak aipatzen duen eremuko urteko negozio-bolumena, hau da, kultur ikastaroen kudeaketan, azken hiru urteetan erabilgarri egon den ekitaldi onenari dagokionez, enpresaburuaren eratze-dataren edo jardueren hasieraren eta eskaintzen aurkezpen-dataren arabera, kontratuaren urteko batez besteko balioaren **%70** izan beharko baita gutxienez. Urteko negozio-bolumena egiaztatzeko, Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailututako urteko kontuak aurkeztu beharko dira, eta erregistro horretan inskribatuta ez badago, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako kontuak aurkeztu beharko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuen kasuan, negozio-bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute.

3) KAUDIMEN PROFESIONALA EDO TEKNIKOA

- LOTE 1: URNIETAKO UDAL ANTZERKI TAILERRAREN (UUAT) KUDEAKETA.

Hau egiaztatu beharko da:

Gutxienez bi urteko esperientzia azken hiru urteetan, kontratuak aipatzen duen esparruan, hau da, antzerki ikastaroen kudeaketan edo antzerki taldeen zuzendaritzan. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira egindako zerbitzuak, edo, hartzailea subjektu pribatua denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez. Egindako zerbitzuen egiaztapenean, horien zenbatekoa, datak eta erakunde kontratatzailea, publikoa edo pribatua, adierazi beharko dira. Ziurtagiri hori izan ezean, enpresaren adierazpen baten bidez egiaztatuko da, prestazioa egin dela egiaztatzen duten eta enpresak dituen agiriekin batera.

- LOTE 2: ARTE ETA KULTURA IKASTAROEN KUDEAKETA.

Hau egiaztatu beharko da:

Gutxienez bi urteko esperientzia azken hiru urteetan, kontratuak aipatzen duen esparruan, hau da, kultur eta arte ikastaroen kudeaketan. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira egindako zerbitzuak, edo, hartzailea subjektu pribatua denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez. Egindako zerbitzuen egiaztapenean, horien zenbatekoa, datak eta erakunde kontratatzailea, publikoa edo pribatua, adierazi beharko dira. Ziurtagiri hori izan ezean, enpresaren adierazpen baten bidez egiaztatuko da, prestazioa egin dela egiaztatzen duten eta enpresak dituen agiriekin batera.

4) SAILKAPENA:

- - [ ] BAI [X] EZ

- Lizitatzaileak, kaudimena egiaztatzeko, ondoko sailkapen hau ere erabili ahal izango du:

KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

	BAI	X	EZ

5) INGURUMENAREKIN ETA KALITATEAREN BERMEAREKIN LOTURIKO KUDEAKETA-ARAUAK BETE IZANA EGIAZTATZEA.

BAI		EZ	X	

17.- BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA

- **1. LOTEA: URNIETAKO UDAL ANTZERKI TAILERRAREN (UUAT) KUDEAKETA.**

Kontratua gauzatzeari nahitaez atxiki beharko zaizkio ondorengo **baliabide materialak:**

Ikastaroetako materiala.

Kontratua gauzatzeari nahitaez atxiki beharko zaizkio ondorengo **giza baliabideak:**

Langileek hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko B-2 euskara maila ahozkoan izan beharko dute.

Tailerreko zuzendariak gutxienez 80 orduko esperientzia izan beharko du azken hiru urteetan antzerki ikastaroak ematen edo antzerki taldeen zuzendaritzan. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira egindako zerbitzuak, edo, hartzailea subjektu pribatua denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez. Egindako zerbitzuen egiaztapenean, horien zenbatekoa, datak eta erakunde kontratatzailea, publikoa edo pribatua, adierazi beharko dira. Ziurtagiri hori izan ezean, enpresaren adierazpen baten bidez egiaztatuko da, prestazioa egin dela egiaztatzen duten eta enpresak dituen agiriekin batera.

- **2. LOTEA: ARTE ETA KULTURA IKASTAROAK.**

Kontratua gauzatzeari nahitaez atxiki beharko zaizkio ondorengo **baliabide materialak:**

Ikastaroetako materiala.

Kontratua gauzatzeari nahitaez atxiki beharko zaizkio ondorengo **giza baliabideak:**

Langileek hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko B-2 euskara maila ahozkoan izan beharko dute.

Irakasleek gutxienez 50 orduko esperientzia azken hiru urteetan espezialitate horretan ikastaroak ematen (kasurik kasu: zur taila, marrazketa eta pintura, eskulanak, joskintza…). Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira egindako zerbitzuak, edo, hartzailea subjektu pribatua denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez. Egindako zerbitzuen egiaztapenean, horien zenbatekoa, datak eta erakunde kontratatzailea, publikoa edo pribatua, adierazi beharko dira. Ziurtagiri hori izan ezean, enpresaren adierazpen baten bidez egiaztatuko da, prestazioa egin dela egiaztatzen duten eta enpresak dituen agiriekin batera.

18.- AZPIKONTRATAZIOA

- Azpikontratatzea aurreikusten den kontratu-zatia nahitaez adierazi	BAI		EZ	X

beharko da eskaintzan, eta horren zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere aipatu beharko dira				
-Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoak:	BAI	**X**	EZ	
Azpikontratatu ezin diren ataza kritikoen deskribapena: Kontratazioaren xede diren ikastaroak ematea.				
- Azpikontratistei zuzenean ordaintzea	BAI		EZ	**X**

19.- BERMEAK

BEHIN-BEHINEKOA	BAI		
	EZ	**X**	
BEHIN BETIKOA	BAI	**X**	Zenbatekoa: kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 5 (BEZ kanpo).
	EZ		
OSAGARRIA	BAI		
	EZ	**X**	

20.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1.LOTEA: **URNIETAKO UDAL ANTZERKI TAILERRAREN (UUAT) KUDEAKETA.**

1.2. BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK: 49 PUNTU, GEHIENEZ.

Eskaintza teknikoa:

Eskaini beharreko zerbitzuaren urte baterako proiektu teknikoa aurkeztu beharko da. Eskema honi jarraitu beharko dio eta gehienez 12 orrialde izango ditu eta honakoak jasoko ditu:

a. Tailerraren helburu eta edukiak aurkeztu: erabiliko den metodologia edo teknikak, ikasleen maila desberdinetara egokitzeko modua, ikastaroa entretenigarria egiteko ideiak, ikasketa maila edo fase desberdinak egon daitezken…
b. Koordinazio-proposamena: zerbitzuen jarraipena bideratu eta errazteko lan-modua aurkeztu: antolaketa egutegia, informazioaren aurkezpen proposamena.
c. Tailerrean lantzeko antzezlan proposamena aurkeztu: sinopsia eta ideia orokorrak.

Balorazio irizpideak: eskaintzak baloratzerakoan, proiektu teknikoan jasotako ondorengo puntuak hartuko dira kontuan: 49 puntu gehienez.

a. Helburu pedagogikoak eta erabiliko den metodologia proposamena. **20 puntu arte.**
b. Koordinazio-proposamena: zerbitzuen jarraipena bideratu eta errazteko lan-modua aurkeztu: antolaketa egutegiaren koherentzia plegu teknikoekin, informazioaren aurkezpen proposamena praktikotasun maila (erraz ulertu eta erabili daitezkeen datuak…). **12 puntu arte.**
c. Tailerrean lantzeko antzezlan proposamena. **17 puntu arte.**

2.2. FORMULAK APLIKATUZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK: 51 PUNTU, GEHIENEZ.

Puntuazioa = gehieneko puntuazioa x aintzat hartutako eskaintza/eskaintza onena

2.LOTEA: ARTE ETA KULTURA IKASTAROAK.

KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK: 49 PUNTU, GEHIENEZ.

Eskaintza teknikoa:
Eskaini beharreko zerbitzuaren urte baterako proiektu teknikoa aurkeztu beharko da. Eskema honi jarraitu beharko dio eta gehienez 10 orrialde izango ditu eta honakoak jasoko ditu:
a. Ikastaroen helburuak eta edukiak aurkeztu: erabiliko den metodologia edo teknikak, ikasleen maila desberdinetara egokitzeko modua, ikastaroa entretenigarria egiteko ideiak, ikasketa maila edo fase desberdinak egon daitezken…
b. Koordinazio-proposamena: zerbitzuen jarraipena bideratu eta errazteko lan-modua aurkeztu: antolaketa egutegia, informazioaren aurkezpen proposamena.
c. Espezialitate eskaintza: arte eta artisautza ikastaroen katalogoa, zein modalitate emateko aukera eskaintzen den…
d. Baliabide materialak: zerbitzuak emateko eskainitako baliabide materialen deskribapena, kantitatea, egoera, zertarako erabili daiteken…

Balorazio irizpideak: eskaintzak baloratzerakoan, proiektu teknikoan jasotako ondorengo puntuak hartuko dira kontuan: 49 puntu gehienez.

a. Ikastaroen helburuen eta edukien kalitatea: aurkezturiko helburuen eta edukien arteko koherentzia maila. **20 puntu arte.**
b. Koordinazio-proposamena: zerbitzuen jarraipena bideratu eta errazteko lan-modua aurkeztu: antolaketa egutegiaren koherentzia plegu teknikoekin, informazioaren aurkezpen proposamena praktikotasun maila (erraz ulertu eta erabili daitezkeen datuak…). **12 puntu arte.**
c. Espezialitate eskaintza: eskaintzaren aniztasuna. **9 puntu arte**.
d. Proposaturiko baliabide materialen egokitasuna ikastaroa emateko: kopurua. **8 puntu arte**.

FORMULAK APLIKATUZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK: 51 PUNTU, GEHIENEZ.

Puntuazioa = gehieneko puntuazioa x aintzat hartutako eskaintza/eskaintza onena

- **Parametroak, balio anormalak edo neurrigabeak dituen eskaintza bat kontuan hartzeko**
  SPKLko 149. artikuluan eta Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean (1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa) 85. Artikuluan finkatutako irizpideak eta prozedura.

- **Berdinketa hausteko irizpide bereziak**
  SPKLko 147.2 artikuluan ezarritakoak.

21.- AURREIKUSITAKO KONTRATU-ALDAKETAK				
BAI			EZ	X

22.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK
Ezaugarrien taulako 17. apartatuan ezarritako baliabideen nahitaezko atxikipena urratzea kontratua suntsitzeko arrazoi izango da.

23.- ZIGORRAK
Baldintza Agiri honetako 38 klausulan ezarritakoak, eta 6 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko, epe osoa edo epe partzialak betetzen berandutzeagatik.

24.- ASEGURUAK

KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

Kontratuaren esleipendun gertatzen den lizitatzaileak erantzukizun zibileko aseguru bat sinatu beharko du ustiapenagatik, patronalagatik eta lokalari eragindako kalteengatik. Aseguru horrek 600.000 €-ko estaldura izango du gutxienez, eta ez du azpisailik biktimako.

25.- LAN HARREMAN JAKIN BATZUEN SUBROGAZIOA

BAI	X		EZ	

1. 2. LOTEA: Gaur egungo enpresak helarazitako Subrogazio Datuak.
Ikusi IX. Eranskina

2. 1. LOTEA: Gaur egungo enpresak ez du subrogazio zerrendarik aurkeztu.

26.- ESKAINTZA-EGILEEI KONPENTSATU BEHARREKO ZENBATEKOA

EZ DAGOKIO

27.-- PRESTAKUNTZA-LANENGATIK KONTURAKO ORDAINKETAK EGITEA

EZ DAGOKIO

28.- BESTE ZEHAZTAPEN GEHIGARRI BATZUK

EZ DA EZARRI.

29.- KONTRATAZIO-MAHAIA

LEHENDAKARIA: Eider Aranguren, Kultura Teknikaria (ordezkoa Luxia Iriondo, Kultura Teknikaria)
1. BOKALA: Xabier de la Mota Vázquez, Idazkari Ez Kontseilaria (ordezkoa Jon Lizaso, Euskara Teknikaria)
2. BOKALA: Aitziber Zurutuza, Udal Kontu-hartzailea (ordezkoa Iker Apaolaza, Teknikari Laguntzailea)
3. BOKALA: Agurtzane Mercader, Kontseilaria (ordezkoa Jorge Segurado, Kontseilaria)
IDAZKARIA: Josune Mayor, Sustapeneko arduraduna (ordezkoa Itziar Beristain, administraria)

30.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Eider Aranguren, Kultura Teknikaria, 33. Klausulan ezartzen diren funtzioekin.

31.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

Proposamenak aurkezteko epea ez da 60 egun natural baino laburragoa izango, lizitazio iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epea amaitzeko eguna eta ordu zehatza kontratuaren lizitazio iragarkian adieraziko dira, kontratugilearen profilean.

KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK 1
1.- Kontratuaren xedea 1
2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak 1
3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 1
4.- Kontratuaren balio zenbatetsia 1
5.-. Kontratuaren prezioa 1
6.- Kreditua izatea 2
7.- Zerbitzua betetzeko epea eta lekua 2
8.- Prezioen berrikuspena 2
9.- Kontratatzailearen profila 2
10.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak 2
11.- Errekurtsoen araubidea 3
II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA 3
12.- Espediente mota eta lizitazio modua 3
13.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak 4
14.- Behin-behineko bermea 4
15.- Proposamenak aurkeztea 4
16.- Lizitatzaileei informazioa ematea 4
17.- Proposamenak 5
18.- BAT zk. gutun-azala: "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA" 5
19.- BI zk. gutun-azala: “BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” 6
20.- HIRU zk. Gutun-azala: “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” 7
21.- Aldaerak onartu ahal izatea 8
22.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak 8
23.- Kontratazio-mahaia 8
24.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea 8
24.1.- BAT zk. gutun-azala irekitzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea 8
24.2.- BI zk. gutun-azala irekitzea eta aztertzea (BI zk. gutun-azalak bakarrik daudenean) 8
24.3.- HIRU zenbakiko gutun-azala irekitzea eta aztertzea 9
24.4.- Kontratazio-mahaiaren aktak 9
25.- Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta eragindako lizitatzaileei jakinaraztea 9
26.- Esleipen-irizpideak 9
27.- Eskaintzak baloratzea 9
28.- Eskaintzak argitzea 10
29.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak 10
30.- Prozedurako ondorengotza 10
31.- Esleipena 10
31.1.- Eskaintzen sailkapena eta esleipen-proposamena 10
31.2.- Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazio justifikagarria aurkeztea 10
31.3.- Behin betiko bermea 13
31.4.- Administrazioak kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta esleipen-prozedura atzera botatzea 13
31.5.- Esleipena 13
32.- Kontratua formalizatzea. 14
III. KAPITULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA 14
33.- Kontratuaren arduraduna 14
34.- Kontratistaren ondorengotza 15
35.- Kontratua lagatzea 15
36.- Exekuzio-baldintzak 16
36.1.- Baldintza orokorrak 16
36.2.- Kontratua betetzeko baldintza bereziak 16

36.3.- Baimen eta lizentzien kudeaketarekin loturiko betebeharrak 22
36.4.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak 22
36.5.- Lan programa 22
37.- Jabetza intelektualaren eskubideak 22
38.- Zehapenak: berandutzagatik eta beste batzuk 22
39.- Kontratuaren aldaketak 23
39.1.- Aurreikusitako aldaketak 23
39.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak 24
40.- Kontratistari egin beharreko ordainketak 24
41.- Kontratua etetea 25
42.- Harrera eta berme-epea 25
42.1.- Harrera eta likidazioa 25
42.2.- Berme-epea 25
42.3.- Bermea itzultzea 25
43.- Kontratua suntsiaraztea 25
I. ERANSKINA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK .... **¡Error! Marcador no definido.**
II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK ..... **¡Error! Marcador no definido.**
III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA..... **¡Error! Marcador no definido.**
IV.- ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO-ADIERAZPENAREN EREDUA..... **¡Error! Marcador no definido.**
V. ERANSKINA - KONFIDENTZIALTZAT JO ETA AURKEZTU DIREN DOKUMENTU ETA DATUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIAREN EREDUA.. **¡Error! Marcador no definido.**
VI.- ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO GAINERAKO ELEMENTUEN EREDUA**¡Error! Marcador no definido.**
VII. ERANSKINA.- ZERGA-BETEBEHARREI BURUZKOA DATUAK BAIMIENTZEKO EREDUA ..... **¡Error! Marcador no definido.**
I. ERANSKINA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK .... **¡Error! Marcador no definido.**
II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK ..... **¡Error! Marcador no definido.**
III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA..... **¡Error! Marcador no definido.**
IV.- ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO-ADIERAZPENAREN EREDUA..... **¡Error! Marcador no definido.**
V.
VI. ERANSKINA - KONFIDENTZIALTZAT JO ETA AURKEZTU DIREN DOKUMENTU ETA DATUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIAREN EREDUA.. **¡Error! Marcador no definido.**
VII.- ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO GAINERAKO ELEMENTUEN EREDUA**¡Error! Marcador no definido.**
VIII. ERANSKINA.- ZERGA-BETEBEHARREI BURUZKOA DATUAK BAIMIENTZEKO EREDUA..... **¡Error! Marcador no definido.**

KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren xedea

1.- Kontratuaren xedea ezaugarrien taulako **3. apartatuan** deskribatutako zerbitzua da, betiere ezaugarri teknikoei buruzko baldintza-agirian ezarritako baldintzekin bat. Hala badagokio, kontuan hartu beharko dira Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) Bigarren Liburuko I. tituluan aurreikusten dituen balizkoetan tramita daitezen aldaketak.

Apartatu horretan horrela ezartzen denean, sortaka egingo da lizitazioa, bertan deskribatzen diren baldintzak eta mugak aplikaturik, SPKLren 99. artikuluak dioenarekin bat.

2.- Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taulako **3. apartatuan** dago jasota.

2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak

Kontratu honekin beteko dira ezaugarri teknikoen deskribatuta dauden premia edo beharrak, zehazki bertan deskribatzen diren zerbitzuen bitartez.

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

1.- Ezaugarrien taulako **4. apartatuan** Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne harturik maximotzat adierazten dena da kontratuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa.

2.- SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, ezaugarrien taulako **4. apartatuan** adierazten da lizitaziorako oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko sistema.

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta ezaugarrien taulako **5. apartatuan** jasoa, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatuko zaion esleipen-prozedura eta izango duen publizitatea aukeratzeko bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun-baldintzak eta aplikatzeko errekurtsoen araubidea finkatzeko. Balio zenbatetsi horrek, horrela aurreikusten den kasuetan, hurrenez hurren ezaugarrien taulako **9. eta 21. apartatuetan** jasotzen diren balizko aukera guztiak jasoko ditu, izan ditzaketen luzapenekin eta kontratu-aldaketa posibleekin batera.

2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5. apartatuan** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabili den metodoa.

5.-. Kontratuaren prezioa

1.- Kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da eta BEZ partida independente gisa jaso beharko du. Kontratuaren prezioan sartutzat joko dira aplikatu beharreko edozein motatako tributu, tasa eta kanonak, bata baldintza-agiri honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzeak esleipendunari dakarzkion gastu guztiak ere.

2.- SPKLren 102.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **4. apartatuan** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabili den metodoa.

3.- Prezioaren zehaztapena oroharreko prezioan egiten den kontratuetan, enpresa esleipendunak eskainiko du kontratuaren prezioa eta hura inoiz ez da lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik gorakoa izango.

4.- Prezioaren zehaztapena prestazioko osagai edo unitateen prezio unitarioen bitartez egiten den kontratuetan:

a) Xedea osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen denean, esleipendunak eskainitako prezio unitarioa unitate kopuruaz biderkaturik ateratzen den emaitza izango da prezioa.

b) Xedea osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen ez denean:

1) Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.
2) Kontratuaren gehieneko aurrekontu-muga finkatuko da, nahiz aurrekontu horretako gastu efektiboa Administrazioaren behar errealek baldintzatuta egongo den; izan ere, Administrazioak ez du obligaziorik izango ez unitate kopuru jakin bat eskatzeko, ezta aurrekontua osorik gastatzeko ere.

5.- Ezaugarrien taulako **4. apartatuan** horrela adierazten bada, prezio unitario partzialak dituzten eskaintza ekonomikoak onartuko dira lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan ageri diren

prezioekiko gehikuntza bat dakarten ehunekoekin, nahiz eta lortzen den gehieneko prezioak ezingo duen inola ere oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa gainditu.

6.- Kreditua izatea

1.-. Behar adinako kreditu egokia dago, kontratua gauzatzeko kalkulatutako gehieneko gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontuko partiden kargura finantzatuko da, eta ezaugarrien taulako **7. apartatuan** ezartzen diren urteroko zenbatekoekin bat.

2.- Ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta SPKLren 117.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, espedientea aurrez tramitatzen bada, kontratuaren esleipenak etendura baldintza bat izango du, hain zuzen ere, behar beste kreditu egokia izatea dagokion ekitaldian kontratutik eratortzen diren obligazioak beteko direla bermatzeko.

7.- Zerbitzua betetzeko epea eta lekua

1.- Zerbitzua betetzeko epea ezaugarrien taulako **8. apartatuan** ageri dena izango da, edo, bestela, enpresa esleipendunak eskaintzen duena, eskaintzaileek epe osoa edota epe partzialak murriztea proposa dezaketen kasuan.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da, baldin eta ezaugarrien taulako **9. apartatuan** horrela jasota badago. Luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat SPKLren 29. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Zerbitzuak toki jakin batean eskaini behar badira, ezaugarrien taulako **12. apartatuan** hala adieraziko da.

8.- Prezioen berrikuspena

1.- Prezioen berrikuspena SPKLan ezarritako baldintzetan egingo da (103. artikulua eta hurrengoak).

2.- Berrikuspena bidezkoa bada, horrela adieraziko da ezaugarrien taulako **15. apartatuan**, formula aplikagarria jasotzearekin batera.

9.- Kontratatzailearen profila

Kontratu honi buruzko informazioa ezaugarrien taulako **2. apartatuan** adierazten den helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

10.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak

1.- Kontratu honek izaera administratiboa du, SPKLren 25. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Aldeak baldintza agiri honetan eta dagokion proiektuan jasotakoari espresuki lotuta gelditzen dira.

2.- Baldintza administratibo partikularren agiriak eta ezaugarri tekniko partikularren agiriak kontratu izaera dute, eta, beraz, esleipendunak sinatu egin beharko ditu, adostasunaren seinale gisa, kontratuaren formalizazio egintzan.

3.- Baldintza-agirian aurreikusi ez diren alderdietan, kontratua honako hauen bidez araututa gelditzuko da: Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL); maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartu zena, aurrekoaren aurka ez doan guztian.

4.- Nolanahi ere, aurretik aipatutako legedi eta araudi horiek SPKLren aurka ez doazen alderdi guztietan aplikatuko dira.

5.- Horien ordez administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horrelakorik ez badago, zuzenbide pribatukoak.

6.- Baldintza-agiri honen eta kontratuko beste dokumentuetako edozeinen artean desadostasunik izanez gero, baldintza-agiri hau nagusituko da.

7.- Kontratuko klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak eta hitzartutakoa betetzeko unean aplikagarri diren jarraibide edo arauak, edo horien alderdiren bat, ez ezagutzeak, ez du esleipenduna horiek guztiak betetzetik salbuesten.

8.- SPKLren 190. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoak du kontratu administratiboak interpretatzeko eta horiek betetzeko unean sortzen diren zalantzak erabakitzeko eskumena. Era berean, egindako kontratuak alde bakarretik aldatu ahal izango

ditu, eta horiek suntsiaraztea erabaki ahal izango du, betiere SPKLk eta hori garatzen duten xedapenek jasotzen dituzten mugen barnean eta bertan adierazitako baldintza eta ondorioekin.
9.- Kontratua aplikatu edo interpretatzerakoan, gauzatzean, aldatzean, betetzean edo suntsiaraztean sor litezkeen auziak Kulturnieta S.A.ren organo eskudunek erabakiko dituzte, kontratistari entzun ondoren, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOren 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta hartzen dituzten erabakiak berehala betearazi beharrekoak izango dira.
10.- Interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz bestelakorik ezarri ez bada eta horien xedea diru-zenbatekoak erreklamatzea, administrazio-prerrogatibak baliatzea edo administrazio-kontratu baten gauzatzeari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai bada, ebazpena emateko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero bere eskabidea administrazio-isiltasunagatik ezetsitzat jo ahal izango du interesdunak, nahiz eta bere horretan iraungo duen hura ebazteko betebeharrak.

11.- Errekurtsoen araubidea

1.- Baldintza-agiri honen eta ezaugarri teknikoen agiriaren kontra hautazko errekurtsoa jarri ahal izango da, SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako errekurtso bereziaren bitartez, baldin eta 100.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duen kontratua bada.
2.- Honako jarduera hauen aurka, halaber, errekurtsoa jarri ahal izango da: Lizitazio-iragarkiak, eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten gainerako kontratu-agiriak.

b) Esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek, zuzenean edo zeharka, esleipenari buruz erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitzea eragozten badute, edo defentsa-gabezia edo eskubide eta interes bidezkoetan kalte konponezina sortzen badute. Edonola ere, aurreko baldintza horiek betetzen direla joko da baldin eta kontratazio-mahaiak edo organoak beren ekintzen bitartez erabakitzen badu hautagaiak edo lehiatzaileak onartzea edo ez onartzea, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea, SPKLaren 149. artikulua aplikatzearen ondorioz bereziki baxuak izateagatik baztertzen diren eskaintzak ere barne.
c) Esleipen-erabakiak.
d) SPKLaren 204 eta 205 artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat harturik egindako aldaketak, aldaketa horrek esleipen berri bat eragin behar zuela ulertzen delako.

SPKLaren 51 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, errekurtsoa kontratazio-organoaren erregistroan, Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan aurkeztu beharko da, 15 laneguneko epearen barruan, SPKLaren 50.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.
Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, errekurtsoaren argudioa SPKLaren 39 artikuluko 2 apartatuko c), d), e) edo f) letretan aurreikusitako baliogabetze-arrazoiren bat denean, SPKLaren 502 artikuluan errekurtsoak jartzeko aurreikusitako epeei kasu egingo zaie.
Horren ordez, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako hitzetan.
3.- Gainerako kontratuetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, edo sektore publikoaren erregimen juridikoaren indarreko araudian edo, halaber, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen aipatutako Lege horretan aurreikusitako errekurtso arruntak jarri ahal izango dira.

II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

12.- Espediente mota eta lizitazio modua

1.- Kontratazio-espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozedura eta tramitazioari jarraikiz garatuko da.
Aldaerak onartzen direnean, lizitatzaileek beste alternatiba batzuk eskaini ahal izango dituzte, ezaugarrien taulako **13. apartatuan** ezarritako moduan eta, betiere, ezaugarri tekniko

partikularren agirian finkatutako baldintza, modalitate eta ezaugarriak jasoz, aipatu apartatu horretan bertan laburbiltzen diren bezala.
2.- Espedientearen premiaz izapidetu beharrak berarekin ekarriko du lizitazio eta esleipenerako ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako arauekin bat.

13.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko inolako galarazpenik eragiten ez badie, eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute.
Baldin eta, araudi aplikagarriak hala ezartzen duelako, lizitatzaileari eskatzen bazaio bere antolakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa-sistemari edota beste batzuei buruzko zenbait baldintza betetzea esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko, prozeduran aurkezten denean egiaztatu beharko ditu alderdi horiek.
2.- Proposamenak aurkezteko epearen amaierako egunean, lizitatzaileek ez dute eduki behar SPKLk 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekurik. Kontratua esleitzeko garaian ere ez die kontratatzeko debekuetako batek berak ere eragin behar.
3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.
4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezkoak dituzten helburuak, xedeak edo jarduera-esparruak kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.
5.- Era berean, Administrazioak kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa kontratua esleitzen zaion arte enpresa-elkartea eskritura publiko bitartez eratuta egotea.

14.- Behin-behineko bermea

SPKLren 106. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aparteko egoera gisa, interes publikoko arrazoiak tarteko eta espedientean hala justifikaturik, kontratu honen kasuan behin-behineko bermea eratzea eskatzen bada, ezaugarrien taulako **19. apartatuan** ageri dena izango da berme horren zenbatekoa.

15.- Proposamenak aurkeztea

1.- Proposamenak **www.contratacion.euskadi.eus** lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira, ezaugarrien taulako **31. atalean** jarritako epean, betiere kontratatzailearen profilean eta erregulazio harmonizatupeko kontratuen kasuan Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) argitaratzen den lizitazio iragarkiak eman epearen barnean.

2.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio klausula agiri honetako **I. eranskinean** jasotakoari.

3.- Dokumentuak izendatzeko unean kontuan hartuko dira klausula agiri honetako 18, **19 eta 20. klausuletan** adierazitako atalak, horietan adierazten baita BAT, BI eta HIRU zenbakiko gutun-azalaetan jaso beharreko dokumentu edukia.

4.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

16.- Lizitatzaileei informazioa ematea

1.- SPKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarri edo gehigarria eman beharra dagoenean, administrazio kontratatzaileak informazio hori eman egin beharko du, eskaintzak aurkezteko finkatutako mugaeguna baino 6 egun natural lehenago beranduenez, betiere informazioaren eskaera mugaegun hori baino gutxienez 12 egun natural lehenago aurkeztu bada. Eskaera hori lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien taulako **1. apartatuan** aurreikusitako posta elektronikoko helbidean egingo da.

2.- Presazkotzat jo diren espedienteen kasuan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretiko gehieneko epe hori 4 egun naturalekoa izango da beranduenez, erregulazio harmonizatupeko kontratuen kasuan.

3.- Baldintza-agiriekin edo gainerako dokumentazioarekin loturik eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.

17.- Proposamenak

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren gutun-azalaetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.

2.- Gutun-azala bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEOren 80.1 artikulua).

18.- BAT zk. gutun-azala: "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA"

1.- "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA" izeneko gutun-azalan sartu beharko dira jarraian zerrendatzen diren dokumentuak, horiek guztiak jasotzen dituen aurkibidearekin batera

a) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).** SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, **II. Eranskinean** jasotako jarraibideekin bat betea, eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatua.
   Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.
   Ezaugarrien taulan kontratuaren xedea loteka zatitzea aurreikusten denean, eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lotetik lotera aldatzen badira, EKAB bat aurkeztuko da kaudimenari buruzko baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote bakoitzeko edo lote talde bakoitzeko.

b) **Aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa, hala egokituz gero.** Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta nondik norakoak eta bakoitzak duen partaidetza adierazita. Horrez gain, esleipendun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honetako **III. Eranskinean** jasotzen da Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

c) Ezaugarrien taulako **17. apartatuan** adierazten diren profil eta zehaztapenei jarraiki, **giza baliabideak eta bitarteko materialak kontratua betetzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena.** Baldintza-agiri honetako **IV. Eranskinean** jasotzen da eredua.

d) **Adingabeen babeserako erantzukizunezko adierazpen-eredua (V. Eranskina)**

e) **Lizitatzaileen izaera konfidentzialeko dokumentu eta datuei buruzko adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi egin beharko dute aurkeztutako zein dokumentu administratibo eta tekniko eta zein datu, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak diren. Hori, gainera, argi adierazi beharko da (gainean inprimatua, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzial jo daitezke, baldin eta horiek hirugarren pertsona edo entitate batzuei zabaltzea lizitatzailearen interes komertzial zilegien kontrakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leiala kaltetu badezake. Adierazpen hau egin ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da. Baldintza-agiri honetako **VI. Eranskinean** jasotzen da eredua.

f) **Behin-behineko bermea egiaztatzeko dokumentua, hala dagokionean.** Behin-behineko bermea eskatuz gero, honela egingo da horretarako gordailua:

   - Banku-kontuaren nazioarteko zenbakia duen ES59 2095 5068 641061618392 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere gehitu beharko da.

- Abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean, kontratazio-organoaren aurrean.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, elkarteko enpresa batek nahiz gehiagok era ditzakete behin-behineko bermeak, baina, denen artean, ezaugarrien taulako **19. apartatuan** eskatzen den zenbatekora iritsi behar dute, eta elkartea osatzen duten guztiak solidarioki bermatu beharko ditu.

g) **Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak.** Atzerriko lizitatzaileek, arestian aipatutako dokumentazioaz gain, jarraian zehazten den dokumentazio berezia aurkeztu beharko dute.

Espainiarrak ez diren enpresa guztiek aurkeztu beharrekoa:

- **Edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mendean jartzeko adierazpena.** Kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta hala dagokionean, uko egingo dio lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari (SPKLren 140.1 f) artikulua)**.**

Europar Batasunaren kide edo Europar Espazio Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako **txostena**, eta bertan agertaraziko da, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoan ohiko maiztasunez aritzen dela kontratuaren xede diren jardueren esparruan.
- **Elkarrekikotasun txostena**, SPKLren 68. artikuluak aipatua, non eta ez diren erregulazio harmonizatupeko kontratuak, zeren eta horrelakoetan txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko baita, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa.

2.- Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango du, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz.

Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko, baina dena den, ez da 10 lanegunetik gorakoa izango, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatutako epe horretan, ulertuko da lizitatzaileak baztertu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

19.- BI zk. gutun-azala: "BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

1.- Ezaugarrien taulako **20. apartatuan** aurretik eta balio-judizio baten bitartez baloratu beharreko esleipen-irizpideak jaso baldin badira, lizitatzaileak BI zenbakidun gutun-azala edo fitxategi elektronikoa aurkeztu beharko du, "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenarekin, horretan sartuz hartan eskatutako dokumentazioa. Memoriak zehatz adierazi beharko du, zenbakituta, adierazitako zenbaki-hurrenkera errespetatuz, eta alderdi hauek zehatuz:

1.LOTEA: **URNIETAKO UDAL ANTZERKI TAILERRAREN (UUAT) KUDEAKETA.**

Eskaini beharreko zerbitzuaren urte baterako proiektu teknikoa aurkeztu beharko da. Eskema honi jarraitu beharko dio eta gehienez 20 orrialde izango ditu eta honakoak jasoko ditu:

a. Tailerraren helburu eta edukiak aurkeztu: erabiliko den metodologia edo teknikak, ikasleen maila desberdinetara egokitzeko modua, ikastaroa entretenigarria egiteko ideiak, ikasketa maila edo fase desberdinak egon daitezken…

b. Koordinazio-proposamena: zerbitzuen jarraipena bideratu eta errazteko lan-modua aurkeztu: antolaketa egutegia, informazioaren aurkezpen proposamena.

c. Tailerrean lantzeko antzezlan proposamena aurkeztu: sinopsia eta ideia orokorrak.

2.LOTEA: ARTE ETA KULTURA IKASTAROAK.

Eskaini beharreko zerbitzuaren urte baterako proiektu teknikoa aurkeztu beharko da. Eskema honi jarraitu beharko dio eta gehienez 15 orrialde izango ditu eta honakoak jasoko ditu:

a. Helburu pedagogikoak eta erabiliko den metodologia proposamena. 20 puntu arte.

b. Koordinazio-proposamena: zerbitzuen jarraipena bideratu eta errazteko lan-modua aurkeztu: antolaketa egutegiaren koherentzia plegu teknikoekin, informazioaren aurkezpen proposamena praktikotasun maila (erraz ulertu eta erabili daitezkeen datuak…). 12 puntu arte.

c. Tailerrean lantzeko antzezlan proposamena. 17 puntu arte.

2.- Memoriaren gehieneko luzera ezin daiteke izan alde bakarretik aipatutako idatzitako orritik gorakoa, edo ezarritako kopuruaren erdiaren gorakoa, bi aldeetatik idazten baldin bada, 1,5 lerroen artean.. Erabilitako letra mota, lehentasunez, arial 10 izango da. Gehieneko luzera horren barnean sartuko dira oin-oharrak, eranskinak, eskemak, argazkiak, grafikoak eta inoiz edo behin gehitu litekeen bestelako edozein dokumentazio mota. Azala eta aurkibidea kanpo geratzen dira.

Dokumentazioak ezarritako orrialde kopurua gainditzen baldin badu, aurkeztutako proposamenak baloratu gabe geratuko dira dena delako irizpideari dagokionez. Edonola ere, hori ez betetzeak ez du eragingo esleipen-prozeduratik kanporatzea.

3.- Gutun-azala honetan ez da inolaz ere sartuko HIRU zenbakidun gutun-azalaren berezko dokumenturik.

4.- 25 puntuko atalasa ezartzen da lehen fase honetan hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko.

20.- HIRU zk. gutun-azala: "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA")

1.- "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izeneko gutun-azala honen barruan eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak sartu beharko dira.

2.- Proposamenak **VII. eranskinean** jasotako eredura egokitu beharko dira. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, jasanarazi behar den kasuan.

Bai eskaintza ekonomikoa eta bai gutun-azala horietan jasotzen den gainerako dokumentazioa ere ezaugarrien taulako **20. apartatuan** adierazten diren irizpideekin bat etorriz ebaluatuko dira.

3.- Eskaintzaren batek lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatzaileak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzen badira edo jasotzen ez badira, baina era batera edo bestera haren zentzua aldatzen ez bada, ez da arrazoi nahikoa izango proposamena baztertzeko.

4.- Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bat baino gehiago aurkez ditzake, SPKLren 142. artikuluan xedatutakoaren aurka joan gabe. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartea eginez inolako proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu edota aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan badago. Printzipio hau urratuz gero, ezetsi egingo dira aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak.

5.- Proposamena enpresa-elkarte batek egina denean, elkarteko enpresa guztiek izenpetu beharko dute proposamena, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez.

6.- Ezaugarrien taulako **13. apartatuak** aldaerak aurkeztea baimentzen duenean, oinarritzat duen eskaintza ekonomikoaz gain, aldaera bakoitzeko eskaintza ekonomiko bat jaso ahal izango du. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa, era berean, baldintza-agiri honetako **VII. Eranskinean** ageri den ereduaren arabera formulatuko da, eta apartatu horretan adierazten diren kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

21.- Aldaerak onartu ahal izatea

Aldaerak onartzen diren kasuan, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak kontratuaren xedearekin loturik eskaini nahi duen adina aukera desberdin jaso ahal izango du, ezaugarri tekniko partikularren agirian finkatutako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin, ezaugarrien taulako **13. apartatuan** laburbildu den moduan. Ezaugarrien taulako apartatu horretan bertan ezartzen den moduan aurkeztuko dira aldaerak, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioko oinarrizko aurrekontua gainditu. Lizitatzaile bakoitzak, aurkezten duen proposamenaren barruan, eskatutako oinarrizko zerbitzurako aukera barneratu beharko du nahitaez.

22.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

1.- Proposamenak aurkeztuz gero, ulertuko da enpresa lizitatzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako eta ezaugarri teknikoen baldintza-agiriko klausulak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, eta halaber, kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematen diela Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatu ditzaten. Baldintza-agiriak ez onartzeak eskaintza atzera botatzea ekarriko du, ezinbestean.

2.- Lizitatzaileek ezingo dute 15 egun naturaleko epean beren proposamena kendu, proposamenak irekitzen direnetik kontatzen hasita, esleipenduna aukeratzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua esleitzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu direnean, SPKLren 158.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Epe hori 15 egun baliodunez luzatuko da, bereziki baxuegi iritzitako eskaintzekin loturik SPKLren 149. artikuluak aipatzen dituen izapideak bete behar direnean.

3.- Proposamen bat behar ez bezala erretiratzen bada, iruzurrez, erruz edo zabarkeriaz jardunez gero, lizitatzaileak ezingo du Administrazio Publikoekin kontratatu, SPKLren 71.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horren ondorioz, gainera, behin-behineko bermea konfiskatuta geratuko da, SPKLren 106.1 artikuluarekin bat etorriz, horrelako bermerik eskatu bada.

23.- Kontratazio-mahaia

1.- Kontratazio-mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskuduna, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta, gainera, mahaiaren osaketa eta eginkizunak garatzen dituen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan jasotakoari jarraikiz jokatuko du.

2.- Mahaiaren osaketa ezaugarrien taulako **30. apartatuan** jasota dago. Hori kontratatzailearen profilaren bitartez argitaratuko da lizitazioaren iragarkiarekin edo, bestela, betiere mahaia bera eratu aurretik aipatutako profilean iragarki espezifiko baten bidez.

24.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea

24.1.- BAT zk. gutun-azala irekitzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio-mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du lizitatzaileek BAT zk. gutun-azalak garaiz eta behar moduan aurkeztutako dokumentazio administratiboa. Mahaiak akats edo huts konpongarririk ikusten badu aurkeztutako dokumentuan, alde interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko. Era berean, dagoeneko aurkeztutakoez gain, beste zenbait dokumentu osagarri edo argigarri aurkezteko eskatu ahal izango dio mahaiak lizitatzaileari, eta horiek aurkezteko 5 egun naturaleko epea emango dio.

2.- Azkenik, kontratazio-mahaiak zehaztu egingo du zein lizitatzaile onartzen dituen lizitazioan eta zein uzten dituen kanpoan, horretarako arrazoiak ere emanda.

24.2.- BI zk. gutun-azalak irekitzea eta aztertzea (BI zk. gutun-azalak bakarrik daudenean)

1.- Horiek aurkeztea nahitaezkoa denean, “BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenarekin identifikatutako BI zk. gutun azalak irekiko dira, horien edukia ezaugarrien taulako **20. apartatuan** adierazitako irizpideen arabera ebaluatzearren.

2.- Ekintza horri abiada emateko, mahaiak berariazko adierazpen bat egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartu direnak eta lizitaziotik kanpo utzi direnak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.
3.- Ezaugarrien taulako **20. apartatuan** adierazten diren ezaugarri formalak betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei eskaintza formalki zuzentzea eskatuko zaie, horien eduki materiala aldatu gabe. Errekerimendu hori bete ezean, prozeduratik kanpo geratuko dira.
4.- Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BI zk. gutun-azalan formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko dokumentazioa (HIRU zk gutun-azala) sartzen dutenak.

24.3.- HIRU zenbakiko gutun-azalak irekitzea eta aztertzea

1.- HIRU zk. gutun-azalak ekitaldi publikoan irekiko dira.
2.- HIRU zk. gutun-azalak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren hasieran –BI zenbakiko gutun-azalarik ez dagoenean–, mahaiak berariazko adierazpen bat egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartu direnak eta lizitaziotik kanpo utzi direnak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.
3.- Balio-judizio bitartez ebaluatzeko irizpideak daudenean, ekitaldi honetan bertan adieraziko da ebaluazio horren emaitza.
4.- Jarraian, kontratazio-mahaiak ireki egingo ditu onartutako lizitatzaileek aurkeztutako HIRU zk. gutun-azalak, “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” izenekoak, eta eskaintza ekonomikoak eta formulak aplikatuz ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak irakurriko ditu.
5.- Gutun-azala horietan jasotzen den dokumentazioa ezaugarrien taulako **20. apartatuan** adierazten diren irizpideekin bat etorriz ebaluatuko da.
6.- Edonola ere, irizpide horien ebaluazioa BI zk. gutun-azalaetan jasotako dokumentazioaren balorazioaren ondoren egingo da beti.

24.4.- Kontratazio-mahaiaren aktak

Aurreko apartatuen arabera egindako guztia agertaraziko da dagozkion aktetan, eta akta horietan, beraz, prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak jasoko dira.

25.- Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta eragindako lizitatzaileei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo bazterketa kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediarekin bat argitaratu ezin den informazioa. Dena den, eragindako lizitatzaileei zuzenduko zaizkie kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak.
2.- Lizitatzaile bat kanpoan uzten bada, egintza hori ekitaldi publikoan bertan jakinaraziko zaio hari, enpresaren ordezkaria ekitaldian bertan dagoela-eta hori posible baldin bada, edo, bestela, jarraitu egingo dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako bestelako prozedurak.

26.- Esleipen-irizpideak

Kontratua esleitzeko irizpideak eta haztapena, bai oinarrizko eskaintzari eta bai aldaera edo hobekuntzei aplikatuko zaizkienak ere, lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien taulako **20. apartatuan** ezarritakoak izango dira.

27.- Eskaintzak baloratzea

1.- Bere eginkizunetan aritzeko, mahaiak beharrezko iritzitako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.
2.- Eskatzen diren ezaugarri teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo dira.
3.- Ezaugarrien taulako **20 apartatuko** irizpideen kasuan, balio-judizioaren mendeko balorazioa dutenak haztapen osoaren % 50 baino gehiago direnean, prestakuntza egokia duen aditu-batzorde batek egingo du BI zk. gutun-azalaren aurretiazko ebaluazioa, edo organismo tekniko espezializatu batek, ezaugarrien taulako aipatutako apartatu horretan berariaz adieraziko den moduan, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Ezaugarrien taulako apartatu horretan

agertaraziko dira adituen batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak baloratu beharreko irizpide zehatzak, aditu horiek balorazioa egiteko izango duten epearekin eta balorazio horrek izan beharko dituen gehieneko eta gutxieneko mugekin batera.

28.- Eskaintzak argitzea

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzari buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiote lizitatzaileari, edo eskaintzaren erredakzioko ageriko akats materialak zuzentzeko esan, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatuta eta eskaintzaren baldintzak aldatzeko inolako aukerarik eman gabe. Jardundako guztia dokumentu bidez agertarazi beharko da espedientean (SPKLren 95. artikulua).

29.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak

1.- Proposamen bati baxuegi irizten zaiolako betetzerik izango ez dela ulertzeko parametro objektiboak finkatu ahal izango ditu kontratazio-organoak ezaugarrien taulako **20. apartatuan**.

2.- Anormaltasun presuntziopean egon daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, kontratazio-mahaiak –edo, bestela, kontratazio-organoak– lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die eskaintza hori ez-ohiko edo anormaltzat definitzea eragin duten proposameneko parametroak arrazoibidez eta zehaztasunez justifikatzeko eta xehakatzeko. SPKLren 149. artikuluko 4.etik 6.era bitarteko apartatuetan aurreikusitako prozedura tramitatuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio-organoari.

30.- Prozedurako ondorengotza

Baldin eta, prozedura izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu baino lehenago, enpresaren ondarea edo jardueraren adar bat batu, zatikatu edo eskualdatzeko eragiketa bat gertatzen bada, sozietate xurgatzailea, bat-egite horretatik sortu dena, zatiketaren onuradun izan dena edo enpresaren ondarea edo dena delako jarduera-adarra eskuratu duena izango da prozeduran lehengo enpresa lizitatzaile edo hautagai haren ondorengoa, betiere horretarako gaitasuna badu, kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimen eta sailkapena egiaztatzen badu, esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateari begira baldintza administratibo partikularren agiri honetan eskatzen diren baldintzak beteta.

31.- Esleipena

31.1.- Eskaintzen sailkapena eta esleipen-proposamena

1.- Behin eskaintzak baloratu ondoren, aktarekin batera dagokion balorazioa eta kontratua esleitzeko proposamena bidaliko dizkio kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari. Proposamenean, ezaugarrien taulako **20. apartatuan** jasotako irizpideak aplikatuz bakoitzari emandako puntuazioaren arabera beheranzko hurrenkeraz antolatuta agertuko dira eskaintzak, kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuta. Kontuan hartutako irizpide bakarra prezioa denean, ulertuko da eskaintzarik onena preziorik txikiena jasotzen duena dela.

2.- Ezaugarrien taulako **20. apartatuan** bi lizitatzaile edo gehiagoren arteko guztirako puntuazio-berdinketa desegiteko irizpiderik aurreikusi ez denean, edo irizpide horiek aurreikusi bai, baina, aplikatu ondoren berdinketak bere horretan segitzen badu, SPKLren 147.2 artikuluan aurreikusten diren irizpide sozialak dagokien hurrenkerari jarraikiz aplikatuz desegingo da berdinketa.

31.2.- Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazio justifikagarria aurkeztea

1.- Kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartzen duenean, kasuan kasuko zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote kontratua esleitzeko beharrezkotzat jasotako dokumentazioa aurkeztu dezala. Horretarako 10 egun balioduneko epea izango du lizitatzaileak, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Dokumentazio hori hauxe izango da:

a) **Jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak.** Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa- edo aldaketa-eskrituraren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, baldin eta aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera inskripzio-betebehar hori galdagarria bada. Erregistroan

inskribatuta egote hori galdagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estatutuen edo fundazio-aktaren bitartez egiaztatuko da, bertan agertuko baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz. Hori guztia aurkezten den dokumentazioan egiaztatu beharko da.

Enpresa pertsona bakarrekoa denean, nortasun-agiria edo haren ordez balio duen dokumenturen bat aurkeztu behar da.

b) **Hala dagokionean, ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak.** Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonek nortasun-agiriaren kopia aurkeztuko dute, horretarako askietsiriko ahalordearekin batera.

Ordezkari horrek NANik ez badu, erregelamenduz hura ordezkatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatua edo dagokion erakunde administratiboak konpultsatua.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribatua egon behar du. Alabaina, egintza konkretu baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatua egotea, betiere Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Ordezkatze-ahala egiaztatzeko dokumentaziorik aurkeztu beharrik ez da izango, ordezkaritza hori Gipuzkoako Foru Aldundian inskribatua dagoenean, tramite honetarako behar beste ahalez, dela hark duen legezko ordezkarien erroldan, dela borondatezko ordezkaritzaren errolda korporatiboan.

c) **Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko edo profesionala.** Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatzea SPKLren 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako eta lizitazio- iragarkian eta ezaugarrien taulako **16. apartatuan** zehaztutako bitartekoak erabiliz.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, horien kaudimena zehaztearren, metatu egingo dira elkartekide bakoitzaren ezaugarriak (HAKLEOren 24.1 artikulua).

d) **Kontratuaren xede den prestazioa emateko enpresa- edo lanbide- gaikuntza egiaztatzea.** Kontratatzeko gaitasunerako baldintza gisa legez galdagarria baldin bada, kontratu honen xede den prestazioa emateko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

e) **Kaudimena kanpo- bitartekoak erabiliz egiaztatzeko** (SPKLren 75. artikulua), frogatu egin beharko da egiaz badirela kontratua betetzeko pertsona eta material aldetiko bitartekoak, beste entitate horiek idatziz hartutako konpromisoa aurkeztu beharko baita.

Lizitatzaileak, kontratua betetzeko, bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berak erabiliko ditu. Aurreikusi ezindako arrazoiengatik horiek ordezkatu behar izanez gero, kaudimen berdina egiazta dezaketen beste bitarteko batzuk baliatuko ditu, betiere Administrazioak baimenduta.

f) **Lizitatzaileak azpikontratatzea aurreikusten duen kontratu- zatiari buruzko adierazpena.** Ezaugarrien taulako **18. apartatuak** eskatzen duenean, lizitatzaileek adierazi egin beharko dute kontratuaren zer zati azpikontratatzea aurreikusten duten, azpikontratazioaren diru-zenbatekoa ehuneko gisa adierazita, lan hori egingo duten azpikontratisten izena edo enpresaren profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definitua) zehaztuta (SPKLren 215. artikulua).

g) **Ingurumen-kudeaketako arauak eta kalitate-bermearekin loturikoak** betetzea. Ezaugarrien taulako **16. apartatuan** horrela aurreikusten bada, han adierazten diren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu lizitatzaileak.

h) **Zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak (edo kontratuaren organo kudeatzailea baimentzea informazio hori Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunetik bil dezan, VIII. Eranskinarekin bat etorriz), baita**

Gizarte Segurantzakoak ere, beren zerga- eta gizarte-betebeharrak betetzearekin lotuak.

i) **Gaizkile Sexualen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa** adingabeekin harremana duen pertsona horrek sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik epai irmoan kondenatua izan ez dela bermatzen duena, horren barruan jasoz eraso eta abusu sexuala, jazarpen sexuala, exhibizionismoa eta probokazio sexuala, prostituzioa eta esplotazio sexuala eta adingabeak galbidean jartzea edota gizakien salerosketa.

j) 250 langiletik gorako enpresek **berdintasun-plan bat badutela justifikatzen duen dokumentazioa** aurkeztu beharko dute, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 45. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz.

k) **Langile finko desgaituen kopuruari buruzko adierazpena.** 50 langile edo gehiagoko enpresek dokumentazioa aurkeztu beharko dute, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostu kuota edo, bestela, osagarri gisa edo subsidiarioki, horren beharrean har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatzeko, hain zuzen ere azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, eta horren garapenerako araudiak aurreikusten dutenarekin bat etorriz. Agindu hori, hain zuzen ere, erosketa publiko eta sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak foru- sektore publikokoaren kontratazioan txertatzen dituen urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 9. Artikuluan jasoa dago.

l) **Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren mendeko jarduerak egiten direnean:** dagokion ekitaldiko alta, edo azken erreziboa, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera eta, hala dagokionean, salbuetsita egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

l) **Behin betiko bermea eratzea**, kasu bakoitzean dagokiona. Honela egin ahal izango da gordailua:
   - Banku-kontuaren nazioarteko zenbakia duen ES59 2095 5068 641061618392 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere gehitu beharko da.
   - Kontratazio-organoaren aurrean, idatzoharra egindako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean.

m) **Behin betiko bermea eratzea**, kasu bakoitzean dagokiona. Honela egin ahal izango da gordailua:
   - Banku-kontuaren nazioarteko zenbakia duen ES59 2095 5068 641061618392 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere gehitu beharko da.
   - Kontratazio-organoaren aurrean, idatzoharra egindako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean.

2.- Aurreko hori horrela izanik ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita geldituko da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik.
Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du enpresak.
Europar Batasuneko estatu kideek kontratatzeko baimena duten enpresariei buruz ezartzen dituzten zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek luzatutako inskripzio-ziurtagiriak aurkeztuz gero, ziurtagiria luzatzen duen estatu kide batean establezimendua duten

enpresariei buruzkoak direnean, uste izango da enpresak gaitasuna duela haietan jasotako hautapen kualitatiborako baldintzei dagokienez.
Era berean, berdin uste izango da, haietan ziurtatutako alderdiei dagokienez, ziurtapen organismo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztuz gero.
Ziurtagiri horiekin batera erantzukizunezko adierazpen bat aurkeztu beharko da, ziurtagirian jasotako baldintzek aldaketarik izan ez dutela adieraziz.
3.- Aurreko bi apartatuetako dokumentazio guztia, eta ezarritako epearen barnean, behar bezala aurkezten ez bada, ulertuko da lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Horrenbestez, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan; diru-kopuru hori jasotzeko, behin-behineko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratu den kasuetan.
Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, eskaintzen sailkapenean hurrengoa den lizitatzaileari dokumentazio berbera eskatuko zaio (SPKLren 150.2 artikulua).
4.- Klausula honetan adierazitakoa emandako epearen barnean betetzen ez duen lizitatzaileari, dolo, erru edo zabarkeriaz jardun baldin badu, kontratatzeko galarazpena ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

31.3.- Behin betiko bermea

1.- Ezaugarrien taulako **19. apartatuan** jasotzen den behin betiko bermea SPKLren 108. artikuluan eta HAKLEOren 55. artikulu eta hurrengoetan aurreikusten den moduetako edozeinetan eratu ahal izango da. Eskakizun hori esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, Administrazioak ez du haren aldeko esleipenik egingo.
2.- Ezaugarrien taulako aipatutako apartatu horretan horrela aurreikusten bada, prezioan atxikipen bat eginez eratu ahal izango da.
Prezioan atxikipena eginez eratuz gero, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, aurrez berariaz hala baimenduta, eta horren kopurua lehen fakturatik eta hurrengoetatik kentzen joango zaio, harik eta kopurua osatzen den arte.
3.- Kontratistari eska dakizkiokeen zehapenak edo kalte-ordainak bermearen bitartez gauzatzen badira, kontratistak berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa dagokion kopuruz handitu, haiek gauzatzen direnetik 15 egun naturaleko epean; horrela ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da.
4.- Kontratuan izandako aldaketaren bat dela eta kontratuaren prezioa ere aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia lizitatzaileari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasi eta 15 egun naturaleko epean, hain zuzen ere prezio berriarekiko proportzioa mantendu dezan.

31.4.- Administrazioak kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta esleipen-prozedura atzera botatzea

1.- Kontratua ez esleitzea edo ez egitea eta esleipen-prozedura atzera botatzea, SPKLaren 152. artikuluan adierazi bezala, hura formalizatu aurretik bakarrik erabaki ahal izango du kontratazio- organoak, lizitatzaileei jakinaraziz eta Europar Batzordeari ere informazioa emanez, kontratua Europar Batasuneko Eguneroko Ofizialean iragartzen denean.
2.- Kasu batean nahiz bestean, hautagaiei edo lizitatzaileei konpentsazioa emango zaie, baldintza-agiri honetako ezaugarrien koadroko **26.atalean** adierazitako kopuruan.

31.5.- Esleipena

1.- **32.3 klausulak** aipatzen duen dokumentazioa jaso eta hurrengo 5 egun baliodunen barruan kontratua esleitu egin beharko du kontratazio- organoak.
Lizitazio bat ezingo da esleitu gabe utzi, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.
2.- Esleipenaren ebazpena arrazoitua izan beharko da eta lizitatzaileei 15 eguneko epean jakinarazi eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.
3.- Aurreko apartatuak aipatzen dituen jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa jasoko dute, eta bereziki SPKLren 151.2 artikuluak eskatutakoa, hain zuzen ere esleipen-prozeduran interesa duten pertsonek esleipen-erabakiaren kontra behar beste oinarritutako errekurtsoak jarri ahal izan ditzaten.

4.- Esleipenaren motibazioan SPKLren 155.3 artikuluan jasotako isilpekotasunaren salbuespena aplikatu beharko da.
5.- Edonola ere, kontratua zer epetan formalizatu behar den adieraziko da bai jakinarazpenean eta bai kontratatzailearen profilean ere, SPKLren 153. artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz.

32.- Kontratua formalizatzea.

1.- Kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da. Dokumentu hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie estu-estu, eta behar besteko titulua izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortzen dituen gastuak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezingo da inola ere esleipen-irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik gehitu.
2.- Kontratua formalizazioarekin batera burutzen da eta, horrenbestez, ezingo da inolaz ere kontratua betetzen hasi aurrez formalizatu gabe.
3.- Kontratua sinatu aurretik, esleipenduna ordezkatzen duen pertsonak honako agiri hauek aurkeztu beharko dizkio kontratazio-organoari:

a) Bere nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten dokumentuak.
b) Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea baldin bada, elkartearen eraketaren eskritura publikoa, elkarteari eman zaion IFK eta ahalorde nahikoa izango duen ordezkariaren izendapena.
c) Baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak emandako ziurtagiria aurkeztu bada, esleipendunak berretsi egin beharko du ziurtagiria ematea eragin zuten inguruabarrak indarrean daudela.
d) 36.1 klausulako 4. apartatuan zehaztutako dokumentazioa.

4.- Kontratua kontratazio arloko errekurtso berezia jartzeko modukoa bada, ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidaltzen zaienetik hasita 15 egun balioduneko epea igaro baino lehen.
Kontratazio-organoak, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igarotakoan eta, betiere, epe horretan, kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik jarri ez bada, esleipendunari eskatuko dio formaliza dezala kontratua, gehienez ere 5 egun naturaleko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren ondorengotik kontatzen hasita. Berdin jokatuko du, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.
5.- Gainerako kasuetan, kontratuaren formalizaziorako gehieneko epea 15 egun baliodunekoa izango da, esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
6.- Kontratua sinatzen den ekitaldi berean, kontratuaz gain, esleipendunak ezaugarri teknikoen agiriak eta baldintza administratiboen agiri hau sinatuko ditu, guztiak ere kontratu izaera dutenak, eta horrela jasota utziko du ezagutzen dituela eta ados dagoela.
7.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barnean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZ kanpo, zehapen gisa; kopuru hori jasotzeko, behin betiko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratu den kasuetan. Horrez gain, kontratatzeko galarazpena ere ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.
8.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozteko modukoak badira, berandutzeak eragindako kalte eta galeren ordaina emango zaio kontratistari.
9.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA

33.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratazio-organoak kontratuaren pertsona arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela gainbegiratzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar den moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Era berean, kontratuaren arduradun izango den pertsonak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesional edo jakintza espezifikoen arabera. Laguntzaile horiek kontratua esleitzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira halaber.

2.- Enpresa esleipendunaren eta kontratazio-organoaren arteko solaskidea kontratuaren arduraduna izango da.

3.- Bere eginkizunak garatu ahal izateko, arduradunak eta haren laguntzaileak libre sartu ahal izango dira kontratuaren xede den prestazioa garatzen den lekuetara, eta egoki iruditzen zaizkien ikuskapen guztiak egin ahal izango dituzte, kontratistak koordinatzaile izendatzen duen pertsonak lagunduta, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak kontratuaren xede diren prestazioak garatzeko erabakigarriak badira. Kasu horietan, kontratuaren arduradunak lekuetara sartzeko beharra justifikatu beharko du, espresuki eta espediente administratibo bidez zehaztuta; espediente hori kontratazio-organoak berretsi beharko du aldez aurretik.

Era berean, egoki iruditzen zaien informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren xedea behar bezala betetzeko beharrezko bilerak sustatu eta antolatu, kontratua gauzatzean izandako edozein gorabehera bideratu ahal izatearren.

Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu jarraibideak.

4.- Zehazki, honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Kontratua betetzeko lanak kontratuan jasotako baldintzetan eta aurreikusitako epean gauzatzen ari direla egiaztatzea. Bereziki, beharrezko ekintzak burutzea, jarduera horrek kontratuaren kalitate-eskakizunak eta klausula sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak betetzen ote dituen egiaztatzearren.
b) Kontratazio-organoari edozein motatako ez-betetzeak jakinaraztea eta, hala dagokionean, zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko eta kontratua behar bezala gauzatzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko edo administrazioari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragiten dituen kalteengatiko ordaina emateko prozedura abiarazi dadila proposatzea.
c) Kontratuan beharrezko den aldaketa oro gomendatzea, esaterako, zehaztapenak, jarraibideak edo eragiketa eraginkorragoak ahalbidetzen dituzten beste betebehar batzuk.
d) Kontratuari atxikitako giza baliabideetan edo bitarteko materialetan aldaketak egin daitezela baimentzea, betiere kontratazio-organoak emandako jarraibideei lotuz, kontratuaren aldaketarik ez dakarten kasuetan.
e) Luzapenen behar eta egokitasunari buruzko txostena egin eta horren arrazoiak ematea.
f) Enpresa kontratistak azpikontratistarekin edo hornitzaileekin dituen ordainketa-obligazioak betetzen dituela egiaztatzea.

5.- Kontratuak irauten duen bitartean kontratuaren arduraduna edo laguntzaileak aldatzen badira, enpresa kontratistari horren berri emango zaio, idatziz, kontratatzailearen profilean argitaratzearekin batera.

34.- Kontratistaren ondorengotza

1.- Enpresak edo enpresen jarduera-adarrak batzen, zatitzen, ematen edo eskualdatzen direnean, kontratuak jarraitu egingo du kontratua esleitzen zaion entitatearekin, hura subrogatu egingo baita kontratuari dagozkion eskubide eta obligazioetan, betiere SPKLren 98. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

2.- Kontratistaren betebeharra da administrazioari era frogagarrian jakinaraztea nortasun juridikoari eragiten dion aldaketa oro. Horrelakoetan eten egingo da dagozkion fakturak ordaintzeko legez aurreikusten diren epeen konputua, harik eta aldaketak egiaztatzen diren arte.

3.- Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen entitateak beharrezkoak diren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta esleipendunaren erruz suntsiarazi dela joko da ondorio guztietarako.

35.- Kontratua lagatzea

1.- Kontratutik datozen eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak

kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapen horrek merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izan diezazkion, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio-organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aldez aurretik ematea.
b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 betea izatea.
c) Enpresa lagapen-hartzaileak kontratuak egiteko gaitasuna eta kontratuaren betetze-fasearen arabera galda daitekeen kaudimena izatea. Gainera, behar bezala sailkatua egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta ez dio eragin behar kontratatzeko inolako debekuk.
d) Enpresa esleipendunaren eta enpresa lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bitartez formalizatzea.

3.- Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

36.- Exekuzio-baldintzak

36.1.- Baldintza orokorrak

1.- Kontratua betetzeko zehatz-mehatz segituko dira baldintza-agiri honetan eta ezaugarri teknikoen baldintza-agirian jasotako klausulak, eta interpretatzeko unean jarraitu egin beharko dira kontratuaren arduradunak kontratistari emandako jarraibideak.

2.- Esleipendunaren erantzukizuna izango da horniduraren xede diren ondasunen kalitatea, baina baita ere, kontratua betetzerakoan huts, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek administrazioarentzat edo hirugarren pertsonentzat dituzten eraginak.

3.- Pertsona edo enpresa kontratistak lantalde eta langile egokiekin egin beharko du hornidura, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun. Bere eskaintzan aipatutako bitarteko teknikoak ere jarriko ditu eta, oro har, lanak ondo egiteko behar diren guztiak.

4.- Nolanahi ere, kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, balizko kalteen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa esleipendunak aseguru-kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, baita kontratu hori sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, ezaugarri-taularen **24. apartatuan** hala jasotzen bada, aipatutako estaldurak segurtatu eta han zehaztutako aseguru osagarriak eduki beharko ditu.

Nolanahi ere, kontratistak ordainduko ditu kalte-galerak, aseguru polizetako mugak gainditzen dituen zatian eta polizek estali gabeko ondasunetan eta arriskuetan.

5.- Administrazioak zehaztuko du kontratistaren prestazioa hori gauzatu eta betetzeko jarritako baldintzetara egokitzen den, eta, hala badagokio, hari eskatuko dio kontratupeko prestazioak egin ditzala eta haiek jasotzean hautemandako akatsak konpondu ditzala. Baldin eta, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, egindako lanak ez badira egokitzen kontratatutako prestaziora, prestazioari uko egin ahal izango dio, eta salbuetsita gelditzuko da hari ordaintzeko betebeharretik edo, hala badagokio, eskubidea izango du ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek beren borondatez onartzen dute lizitazio, esleipen eta exekuzioaren prozesuetatik eratorritako datu guztiei gardentasuna ematea.

36.2.- Kontratua betetzeko baldintza bereziak

Ezaugarrien taulako **14. apartatuan** aurreikusitakoez gain, exekuzio-obligazio bereziak izango dira jarraian zehazten direnak:

36.2.1- Lan eta gizarte arloko baldintzak eta ingurumena babestekoak

1.- Kontratistak lan, gizarte-segurantza eta laneko segurtasun nahiz osasun edota ingurumen-babesaren arloko lege, araudi eta hitzarmen xedapen guztiak bete beharko ditu nahitaez, baita baldintza agiri hauetan xedatutakoak ere.

2.- Kontratistak kontratua gauzatuko duten langileei aplikatuko dizkien lan-baldintzak, hain zuzen ere, enpresa kontratistaren jarduera kokatuta dagoen sektorearen maila txikieneko esparruko azken hitzarmen kolektiboan ezarritakoak izango dira; betiere, indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoen kaltetan izan gabe.

3.- Kontratuaren indarraldi osoan zehar, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan-baldintzak bere horretan mantendu beharko ditu hitzarmen kolektibo aplikagarriarekin bat

etorriz, eta ezingo ditu lan-baldintza horiek okerragotu, nahiz eta, aurrerago, hitzarmen horren indarraldia amaitu, lan-hitzarmenen indarraldiaren amaierari buruz legeetan edo hitzarmenetan aurreikusitakoa betez. Obligazio hori bete dela ulertuko da baldin eta hitzarmenak indarra galdu aurreko berehalako unean indarrean zeuden lan-baldintzak bere horretan mantentzen badira. Edonola ere, lan-baldintzak bere horretan mantendu direla ulertuko da baldin eta lan-baldintza horiek enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunez aldatu badira. Hala ere, soldata-baldintzak ezingo dira inola ere sektoreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino murritzagoak izan. Kontratistak egoera hori egiaztatzeko eskatzen zaion informazio edo dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratazio-organoari.

4.- Enpresa lizitatzaileek zehaztu egin beharko dute kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien. Horretarako, kontratua esleitu ondoren, kontratu horri atxikitako langileei aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko du.

5.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jasoko da esleipen-ebazpenean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

6.- Kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzen edozein aldaketa, baldin eta esleipenaren unean aplikagarri den hitzarmen kolektiboan xedatutako lan-baldintzei eragiten badie, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio-organoari. Komunikazio horretan negoziazioari buruzko dokumentazio justifikagarria jaso beharko da, baita lan-baldintza berrien edukia eta aldaketa horrek kontratuaren kostuen egituran izango duen berehalako eta etorkizuneko eragina ere.

7.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatu egingo du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte-segurantzan izena emanda eta alta emanda daudela, eta halaxe jakinaraziko dio kontratazio-organoari.

8.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak egoki eta komeni diren jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

36.2.2.- Kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen baldintzak

1.- Esleipendun gisa proposatutako enpresak, kontratatutako jarduerari hasiera eman aurretik, kontratua betetzeko erabiliko dituen langileen zerrenda aurkeztu beharko du eta, aldi berean, Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela egiaztatu beharko du. Bestela, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, kontratua betetzen arituko diren langileak data horretan kontratatuta ez dauzkala adieraziz eta kontratatzen dituenean haien guztien afiliazio eta alta egiaztatuko duela, betiere kontratatutako jarduerari ekin aurretik.

2.- Enpresak kontratuaren xedeari atxikiko dizkion langile berriak kontratatzen dituenean, behartuta egongo da entitate kontratatzaileari informazio eta dokumentazio hau ematera:

- Gizarte Segurantzaren afiliazioa eta alta.
- Kontratuen modalitatea, xedea, kategoria edo talde profesionala eta lanaldia.
- Urteko soldata gordina (ordainsari kontzeptuen arabera xehatuta).
- Hala badagokio, hitzarmen kolektibo aplikagarria eta indarrean dauden itun aplikagarriak.
- Behar denean, lan horretarako gaitzen duen titulazio akademikoa.

3.- Enpresa kontratistak, hilero, kontratuari atxikitako langile guztien eta hari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridiko guztien zerrenda bidaliko dio kontratuaren arduradunari, baita langileen soldaten eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketaren egiaztagiriak ere.

4.- Kontratuaren baldintzak betetzen ari direla egiaztatzeko, kontratazio-organoak beharrezkoa den informazio pertsonal egokia bakarrik eskuratu ahal izango du, gehiegizkoa izan gabe eta datuen kalitate-printzipiora egokituta, betiere datu-babesari buruzko legerian jasotako printzipioak betez.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak egoki eta komeni diren jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

36.2.3.- Subrogazio kasuetarako baldintzak

1.- SPKLren 130. artikuluan jasotako informazio betebeharra aplikatuz, ezaugarrien taulako **25. apartatuan** subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa eskaintzen da, enpresa lizitatzaileek beraiei kontratua esleituz gero izango lituzketen benetako lan-kostuen ebaluazio egokia egin dezaten.

Informazio hau eskaintzen da, hain zuzen ere: subrogazioari lotutako langileen zerrenda, aplikatuko den hitzarmen kolektiboa, lan-kategoria, kontratu mota, antzinatasun-data, lanaldia, kontrataren mugaeguna, langile bakoitzaren soldata gordina, subrogazioari lotutako langileei aplikagarri zaizkien itunak eta, derrigorrezkoa denean, titulazio akademikoa.

2.- Enpresa berriari kontratua esleitu ondoren, baina kontratua gauzatzen hasi aurretik, zerbitzuaren prestazioa uzten duen enpresak enpresa berriari ziurtapen bat emango dio, eta bertan agertuko dira langileen izenak, jaiotegunak, mota guztietako ordainsari guztiak (ordainsarien kontzeptuaren arabera xehatuta), antzinatasuna, kontratuen modalitatea, kontratuan aurreikusitako mugaeguna, lanaldia, kategoria edo talde profesionala eta indarrean dauden itun aplikagarri guztiak, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtapena (Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egoteari buruzkoa) eta ordaindu behar dituen zati proportzionalen likidazioaren ordainagiriak ere. Era berean, esleipendun berriaren esku jarriko ditu hark hura guztia egiazkoa dela egiaztatzeko egoki jotzen dituen agiriak.

Enpresa barruan langileen ordezkariak daudenean, ziurtapenarekin batera, ordezkari horrek egindako txosten bat aurkeztu beharko da, aurreko paragrafoan aipatutako datuak gutxienez jasoz.

3.- Subrogazioa gertatu ondoren, aurreko kontratistak kontratazio-organoari emandako informazioaren arabera dauden kostuak baino handiagoak badira lan-kostuak, kontratista berriak zuzenean aurreko kontratistaren aurka jo ahal izango du.

4.- Prestazioa uzten duen kontratistak subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabe utzitako soldaten eta Gizarte Segurantzako kotizazioen gaineko erantzukizuna izango du, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta kontratista berriak langile horiek subrogatu, betiere betebehar hori azken kontratistari egotzi gabe (salbu eta subrogazioa Langileen Estatutuko 44. artikulua aplikatuz gertatu bada). Xede horri begira, entitate kontratatzaileak atxiki egingo ditu, behin soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion kopuruak, soldata horien ordainketa bermatzearren, eta, gainera, ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldaten ordainketa egiaztatu arte.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak egoki eta komeni diren jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

36.2.4.- Gauzatzeko hizkuntza-baldintzak

Langileek Europako Esparru Bateratuko euskarako B-2 ahozko hizkuntza-gaitasun-maila egiaztatu beharko du, 263/1998 Dekretuarekin bat datorren ziurtagiria aurkeztuta. Haurrekin harreman zuzena duten begiraleek Europako Esparru Bateratuko ahozko B-2 hizkuntza-gaitasun-maila egiaztatu beharko dute.

Zerbitzua ematen ari den bitartean enpresa esleipendunak herritarrei ematen dizkien ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta bestelako idatziak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz izango dira; bigarren kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna. Enpresa esleipenduna

saiatuko da euskara erabiltzen Kulturnieta S.A. enpresarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanetan.

38.2.5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin loturiko baldintzak

1.- Kontratazio honek nahitaez bete beharko ditu Urnietako Udalak bere II. Berdintasun Planean genero arloan onartuta dauzkan irizpideak; www.urnieta.eus helbidean dago eskuragarri.

Beraz, genero-ikuspegia beti hartu behar da aintzakotzat, kontratatutako lana egiteko garaian.

2.- Erabilitako agiri guztietan (programa aurkezteko idatzietan, galdetegiko testuak, txostenak eta abar) hizkuntza ez-sexistako irizpideak aplikatu behar dira.

3.- Ildo beretik, kontratua diseinatu eta exekutatzean genero-ikuspegia hartuko dute aintzakotzat, hala diagnostikoan nola helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan. Era berean, urteko txostenak erabiltzaileen arabera banatutako datuak eta adierazleak bilduko ditu.

36.2.6.- Baldintzak azpikontratazioan

1.- Azpikontratuak egin ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Esleipendunak, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasten denean, idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa, zerbitzuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratistak nor diren zehaztuz. Horrez gain, azpikontratisten nortasuna, harremanetarako datuak eta lege-ordezkariak zein diren adierazi beharko du, eta, era berean, azpikontratistek kontratua gauzatzeko gaitasuna dutela behar bezala justifikatu beharko du, eta halaber, Administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez dutela.

   Azpikontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 71. artikuluan aurreikusten diren kontratatzeko debekurik edo gaitasun-ezik betetzen ez duela egiaztatu ahal izateko, enpresa kontratistak nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratistak sinatutako erantzukizunezko aitorpen bat, gauzak horrela direla adierazten duena.

   Azpikontratuak eskaintzan zehaztutakoarekin bat ez badatoz, dela eskaintzan izenez adierazitako enpresariekin egin ordez beste batzuekin egiten direlako, edo dela eskaintzan adierazitako prestazioaren alderdiak ez diren beste batzuei buruzkoak direlako, ezin izango dira egin harik eta jakinarazpena bidali eta azpikontratistak hori egiteko duen gaitasunari buruzko egiaztagiriak aurkezten direnetik 20 egun igaro arte, dauzkan giza baliabideak eta bitarteko teknikoak nahiz esperientzia aipatuz, non eta azpikontratu horiek ez diren aldez aurretik berariaz baimendu, eta Administrazioak ez badu, epe horren barruan, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, eskaintzan azpikontratistak bere lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira.

b) 20 egun naturaleko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere kontratistaren erantzukizunpean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako eta horrela behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.

c) Isilpeko kontratuetan edo izaera erreserbatukoetan, edo segurtasun-neurri bereziez babestuta gauzatu beharrekoetan, lege nahiz araudien arabera, edo estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrak hala eskatzen duenean, azpikontratazioa egiteko, kontratazio-organoaren berariazko baimena beharko da beti.

2.- Ezaugarrien taulako **18. apartatuan** aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, eta kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.

3.- Azpikontratistak kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira, eta beraz, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra, hitzez hitz bete beharko baititu baldintza administrazio berezien agiria eta kontratuan xedatutakoa, gizarte eta lan arloko betebeharrak nahiz ingurumen arlokoak barne.

Enpresa kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa ez da ezertan aldatuko, nahiz eta Administrazioak aurreko 1. apartatuaren a) eta b) letretan adierazitako komunikazioen arabera

egin diren azpikontratuen berri izan edo c) letran ezarritako kasuan emandako baimena izanda ere.
4.- Kontratistak ezingo du, inolaz ere, antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonekin kontratuaren zati bat gauzatzeko hitzarmenik egin.
5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioari buruzko informazioa eman beharko dio langileen ordezkaritzari, lan-legerian xedatutakoarekin bat etorriz.
6.- Enpresa edo entitate esleipendunak azpikontratua gauzatuko den dokumentua aurkeztu beharko du kontratazio-organoaren aurrean. Bertan, enpresa edo entitate azpikontratistaren betebeharrak zehaztu beharko dira, kontratu honetan aurreikusitako klausulen inguruan, baita horiek ez betetzeak sortzen dituen ondorioak ere.
7.- Azpikontratistei ordaintzeari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 216. artikulua bete beharko da, eta halaber, abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritza eragiketetako berankortasunaren arauko neurriak ezartzen dituena, aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa.
8.- Kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak zehatz-mehatz bete dituen egiaztatu ahal izango du Administrazioak.
Horretarako, Administrazioak hala eskatuz gero, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda bidali beharko dio kontratistak Administrazioari, xehetasun guztiekin, haien parte hartzea gauzatzen denean; bertan, bakoitzaren azpikontratazio- edo hornikuntza-baldintzak ere zehaztu beharko dira, ordainketaren epearekin zerikusi zuzena dutenean.
Halaber, Administrazioari frogagiri bat aurkeztuko dio, hark hala eskatuz gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutako ordainketa-epeak bete izana egiaztatzen duena, betiere prestazioa amaitu ondoren.

36.2.7.- Enpresa kontratistaren langileen baldintzak

1.- Enpresa kontratistaren ardura izango da, eta soilik berarena, baldintza-agirietan jasotako titulazio- eta esperientzia-baldintzak bete (titulazio eta esperientziari buruzko berariazko baldintzak eskatuz gero) eta kontratua betetzera xedatutako lantaldean sartuko diren langileak hautatzea. Halere, horrek ez du eragotziko kontratazio-organoak baldintza horiek betetzen direla ziurtatzea.
2.- Enpresa kontratista lantaldea egonkorra izan dadin ahaleginduko da eta, haren osaeran izaten diren aldaketak, halakorik izatekotan, unean unekoak eta arrazoiz justifikatuak izan daitezen, zerbitzua behar bezala eskaintzeari begira (exijentzia hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean). Kontratazio-organoari uneoro emango zaio horren guztiaren berri, Klausula Partikularren Baldintza Agirian jasotakoaren arabera.
3.- Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du, bere langileei dagokienez, enpresari guztiei dagokien zuzendaritza-boterea benetan, eraginkortasunez eta etengabe gauzatuko duela. Hori begira, ondoko eginkizun hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkapenak egitea; laneko arriskuak ekiditeko lege-betebeharrak betetzea; beharrezkoa izanez gero, diziplinazko zigorrak ezartzea; Gizarte Segurantzako xedapenak eta, bereziki, kotizazioak eta prestazioak ordaintzeari dagozkionak betetzea; eta, oro har, enplegatzailearen eta langileen arteko kontratu-harremanetik datozen gainerako eskubide eta betebehar guztiak betetzea.
4.- Enpresa kontratistak bermatu egingo du, bereziki, kontratuaren exekuzioari atxikitako langileek beren jarduera dagozkien eginkizunen muga gainditu gabe gauzatuko dutela, betiere baldintza-agirietan kontratuaren xedetzat mugatutako jardueraren arabera.
5-. Enpresa kontratistak gutxienez pertsona bat izendatu beharko du, bere enpresako langileen artetik, koordinazio teknikoaz arduratzeko, eta ondorengo eginkizun hauek beteko ditu pertsona horrek:

a) Solaskidea izatea bere enpresaren eta entitate kontratatzailearen artean. Horretarako, batetik, enpresaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen

arteko komunikazioa bideratuko du eta, bestetik, haren eta administrazio kontratatzailearen artekoa, betiere kontratua betetzearekin lotutako alderdiei dagokienez.

b) Kontratua betetzeko ardura izango duten langileen artean zereginak banatzea, eta kontratatutako zerbitzuaren prestazioarekin loturik beharrezkoak diren laneko agindu eta jarraibideak ematea.
c) Lantaldeko langileek haiei agindutako eginkizunak betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lantokira joaten direla kontrolatzea.
d) Kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen oporrak antolatzea. Horretarako, behar bezala koordinatu behar dira enpresa kontratista eta administrazio kontratatzailea, zerbitzuaren martxa egokia eten ez dadin.
e) Kontratuaren exekuzioari atxikitako lantaldearen osaeraren aldaketen inguruko informazioa ematea entitate kontratatzaileari, aldaketa horiek behin-behinekoak izan edo iraunkorrak izan, 36.2.2 klausulan jasotakoaren arabera.

6.- Enpresa kontratistak bere bulego edo instalazioetan bete beharko du kontratua, baldintza-agirian aurreikusi ezean zerbitzuak entitate kontratatzailearen bulegoetan ematea eta espresuki hala baimendu bada. Kasu horretan, administrazio kontratatzaileak langile publikoek erabiltzen dituzten lan-eremuez kanpoko beste eremu batzuk jarriko ditu enpresa kontratistaren esku, eta enpresa kontratistak zaindu beharko du bere langileek zerbitzu horiek horretarako izendatutako kokalekuan eskaintzen dituztela. Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuetan enpresa kontratistako langileak eta bitartekoak behar diren ikur bereizgarriekin identifikatuko dira; esate baterako, uniformeak edo errotulazioak erabiliko dira.

7.- Enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute diru-zenbateko bat ordaintzera, diru-zenbateko hori kontratistari jasanaraziko zaio, eta horri begira, administrazio kontratatzaileak beharrezko edozein jarduketa administratibo edo judizial egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

36.2.8.- Informazioaren segurtasunarekin loturiko baldintzak

1.- Esleipendunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen edozein pertsonak horiei buruzko sekretu profesionala mantendu beharko du, eta datu horiek babestu beharko ditu. Obligazio horiek indarrean egongo dira entitate kontratatzailearekin duen harremana amaitu ondoren ere.

2.- Enpresa kontratistak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean dagoen legeria betez egingo da, baita entitate kontratatzaileak adierazten dizkion jarrabideak betez ere.

3.- Esleipendunak ezingo ditu datu horiek hirugarrengoei laga edo kontratua betetzeko helburu zehatzak ez diren beste helburuetarako erabili.

4.- Esleipendunak, datu horien tratamendurako arduradun gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neuri tekniko edo antolakuntzazkoak aplikatuko ditu, dela giza jardueren ondorioz edo dela ingurune fisiko edo naturalaren ondorioz datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea eragozteko.

5.- Kontratua indarrean dagoen bitartean, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du esleipendunak, bai segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta bai beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko ere.

6.- Kontratuko zerbitzua amaitu ondoren, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu egin beharko ditu, edo bestela, entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako tratamendurako arduradunari itzuli beharko dizkio.

7.- Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute diru-zenbateko bat ordaintzera, diru-zenbateko hori kontratistari jasanaraziko zaio, eta horri begira, administrazio kontratatzaileak beharrezko edozein jarduketa administratibo edo judizial egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

36.3.- Baimen eta lizentzien kudeaketarekin loturiko betebeharrak

1.- Lanak behar bezala egiteko behar diren baimen edo lizentzia guztiak lortzea enpresa kontratistaren erantzukizuna eta ardura izango da, kontratazio-organoak bere kasa kudeatzea erabaki ezean, eta horien gaineko eskumena dutenek ezarritako baldintzak eta ezaugarriak bete behar ditu kontratistak.

2.- Baimenak edo lizentziak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat baldin badakar, horien ordainketak edo horietarako gordailua egitea ere enpresa kontratistaren ardura izango da.

36.4.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak

Kontratistaren kontura izango dira publizitate ofizialaren gastuak, ezaugarrien taulan ezarritako gehieneko mugarekin, kontratua formalizatzeko gastuak, eskritura publikoa egiten den kasuetan eta, halaber, kontratua betetzeari begira egoki diren lizentzia eta baimen guztiak.

36.5.- Lan programa

1.- Ezaugarri teknikoen baldintza-agirian ezarritakoarekin bat etorriz, Administrazioari egoki iruditzen bazaio lan-programa bat eskatzea, esleipendunak aurkeztu beharko dio lan-programa hori, Administrazioak onets dezan, hautatutako aukerari buruzko dokumentuak onesten diren aldi berean, eta hala badagokio, epe partzialak finkatuko dira.

2.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, esleipendunak gaurkotu eta egunean jarri beharko du programa hori, horretarako jasotzen dituen jarraibideak betez.

37.- Jabetza intelektualaren eskubideak

Kontratuaren xedea jabetza intelektual edo industrialaren eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea bada, berarekin ekarriko du eskubide hori administrazio kontratatzaileari lagatzea.

38.- Zehapenak: berandutzagatik eta beste batzuk

1.- Kontratazio-organoak, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, zehapenak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren adierazten diren arau-urratzeengatik:

a) Epe osoa edo epe partzialak betetzen berandutzeagatik.
b) Prestazioa oker betetzeagatik, kontratazio publikoan aplikatzekoak diren hizkuntza-baldintzak, jokaera-kodea eta erakundearen zuzentasun-esparrua edota beste edozein exekuzio-baldintza berezi urratzeagatik edo oker betetzeagatik (SPKLren 192. artikulua).
c) Urratzeagatik edo oker betetzeagatik, eskaintzak baloratzeko irizpidetzat kontuan hartu diren alderdiei eragiten dienean (SPKLren 122. artikulua).
d) Soldatak ordaintzeko orduan arauak urratzeagatik edo atzerapen errepikatuak izateagatik, edo hitzarmen kolektiboetatik ondorioztatzen diren soldata-baldintzak baino murritzagoak aplikatzeagatik, aplikazio hori larri eta dolozkoa denean (SPKLren 201. artikulua).
e) Azpikontrataziorako obligazioak, baldintzak eta bestelako eskakizunak urratzeagatik (SPKLren 215. artikulua).
f) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, hori galdagarria denean.

2.- Zehapenen zenbatekoa honako hau izango da:

a) a) letran jasotako arrazoiarengatik, SPKLren 193. artikuluko 3. apartatuan aurreikusten den zenbatekoa, ezaugarrien taulako **23. apartatuak** beste batzuk ezarri ezean.
b) 1 apartatuko b), c) eta d) letretan jasotako arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren % 4, kontratazio-organoak, arrazoturik, urratze hori larria edo oso larria dela iritzi ezean, eta hala gertatuz gero, % 7raino iritsi ahal izango da larrien kasuan, eta % 10eraino bigarrenean. Urratze hori behin eta berriz gertatzen bada, larritasuna baloratzeko kontuan hartu ahal izango da.
c) e) letran jasotako arrazoiarengatik, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50eraino.
d) f) letran jasotako arrazoiarengatik, egunean euro bateko zigorra kontratu-prezioaren 5.000 euroko; kopuru hori, hala dagokionean, lehen ziurtagirian deskontatuko da.

e) Aurreko 1. apartatuko g) letran jasotako arrazoia urratze oso larritzat hartuko da.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak direla eta, hori behar bezala gauzatzeko beharrezko iritziz gero aurreko apartatuan adierazitakoak ez diren beste zehapen batzuk ezartzea, ezaugarrien taulako **23. apartatuan** zehaztuko dira horiek.

4.- Enpresa kontratista berandutze-egoeran jotzeko ez da beharrezkoa Administrazioak aldez aurretik betetzeko agindurik ematea.

5.- Bitartekoak atxikitzeko konpromisoa, hizkuntza- baldintzak edo esleipenaren baldintza berezietako beste edozein urratzeagatik edo oker betetzeagatik ezartzen diren zehapenak kontratazio-organoak urratze hori egiaztatzen duen unean bertan ezarriko dira.

6.- Eskaintzak baloratzeko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiei eragiten dieten urratzeagatiko edo oker betetzeagatiko zehapenak ezartzeko, kontratazio-organoak, harreraren unean, egiaztatu egin beharko du, kontratistari egozteko moduko arrazoiak direla- eta, hark ez duela kontratua –edo esleipenerako garrantzitsua izan den eta eskaintzan bere gain hartutako konpromisoren bat– bete.

Bete gabeko konpromisoak garrantzitsuak direla joko da baldin eta, kontratistak bete ez duen irizpidean lortu duen puntuazioaren % 50 deskontaturik, gertatzen bada haren eskaintza ez zela ondoen baloratua izango.

7.- Oker betetzeagatiko zehapenak ezarririk ere, kontratistak legezko obligazio batzuk izango ditu akats horiek konpontzeari dagokionez.

8.- Zehapena ezartzeak ez du galera eta kalteengatik ordaina eman behar izatetik salbuesten (SPKLren 196. artikulua).

9.- Berandutzagatiko zehapenen zenbatekoa faktura edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala dagokionean, bermetik, aipatutako beste dokumentu horietatik kentzerik ez dagoenean. Bermearen gainean gauzatzen direnean, kontratistak birjarri edo handitu egin beharko du hura, hori gauzatu denetik 15 egun naturaleko epean, eta bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da.

39.- Kontratuaren aldaketak

1.- Kontratua burutzen denean, kontratazio-organoak bakar-bakarrik interes publikoagatiko aldaketak gehitu ahal izango ditu bertan, baldin eta horrela aurreikusten bada ezaugarrien taulako **21. apartatuan**, edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako balizkoetan eta mugekin.

2.- Kontratuaren xedean aldaketak sartzea beharrezkoa denean, kontratuaren arduradunak proposamen egokia idatziko du, proposamena justifikatu, deskribatu eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik, enpresa kontratistari entzuteko aukera eman beharko dio.

3.- Ezaugarrien taulako **21. apartatuan** aurreikusitako aldaketak eta SPKLren 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketarako balizkoetan egokitzen direnak, bakarka edo denak batera hartuta kontratuaren hasierako prezioaren % 20ko aldaketa gainditzen ez duen aldaketa eragiten dutenean –BEZa kanpo–, nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat, eta kontratazio-organoak erabaki beharko ditu, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOren 102. artikuluan aurreikusitako prozedura aurrez tramitatuta, eta dokumentu administratiboan formalizatu beharko dira, SPKLren 153. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, hala dagokionean behin betiko bermea aurrez birdoituta.

4.- Ez kontratistak, ez kontratuaren arduradunak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik gehitu edo egin. Administrazioak behar bezala baimendu gabeko kontratu- aldaketek enpresa kontratistaren ardura eragingo dute. Horrek, hala dagokionean, aldaketak izan dituzten alderdiak berregin beharko ditu, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak eguneratu egin beharko du nahitaez laneko programa.

39.1.- Aurreikusitako aldaketak

1.- Kontratu hau aldatu egin daiteke, horrela aurreikusi bada, baldintza-agiri honetako ezaugarrien taulako **21. apartatuan** zehaztutakoaren arabera, betiere bertan finkatutako baldintza, irismen eta mugekin, eta aldaketek hasierako prezioaren ehuneko hogeitik gora egin gabe.

2.- Aldaketak egiteko arrazoi bat baino gehiago aurreikusiz gero, jaso egin beharko dira horietako bakoitzaren inguruabarrak, baldintzak, irismena eta mugak.
3.- Aurreikusten diren aldaketek ezingo dute, inolaz ere, kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk finkatzea eragin.

39.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak

1.- Ezaugarrien taulako **21. apartatuan** aurreikusitakoak ez diren beste aldaketa batzuk gehitu ahal izango dira, interes publikoko arrazoiak daudenean, edota behar beste justifikatzen denean SPKLren 205.2 artikuluan jasotzen diren balizko tasatuetako bat edo batzuk gertatzen direla, eta betiere aldaketa horiek beharrezko egiten dituen arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbesteko aldaketak gehitzera mugatzen badira.
2.- SPKLren 205. artikuluan ezarritakoaren kontra joan gabe, kasu horietan kontratua aldatzeari ekin aurretik entzuteko aukera eman beharko zaio zehaztapen teknikoak idatzi dituen pertsonari, baldin eta zehaztapen horiek prestatu dituena kontratazio-organotik kanpoko hirugarren pertsona bat izan bada zerbitzu-kontratu baten arabera, hain zuzen ere 3 egun naturaletik beherako epean egoki ikusten dituen kontsiderazioak formula ditzan.

40.- Kontratistari egin beharreko ordainketak

1.- Zerbitzuaren ordainketa entrega egin eta adostasunez jaso ondoren egingo da, betiere aldez aurretik fakturak edo dokumentu baliokideak aurkeztuta, edota ziurtagiriak entrega partzialak direnean, eta harrera-akta hala dagokionean. Horri begira, entrega-datatik 30 egun naturaleko epea izango du kontratistak, faktura aurkezteko.
2.- Kontratistak eskubidea izango du kontratuaren exekuzioa prestatzeko lanen zenbatekoa kontura ordaindu diezaioten, baldin eta lan horiek kontratuaren xedean sartuta badaude, ezaugarrien taulako **27. apartatuan** adierazitako baldintzetan. Konturako ordainketa horiek bermea jarrita ziurtatu beharko dira.
3.- Fakturak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira, faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrari eta fakturen kontabilitate erregistroari buruzko alderdi batzuk arautzen dituen abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduak ezartzen dituzten kasuetan.
4.- SPKLren 198. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, emandako zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartzen diren datatik hurrengo 30 egun naturaleko epearen barnean prezioa ordaindu beharko du Administrazioak; eta berandutzen bada, 30 egun naturaleko epe hori betetzen denetik aurrerako berandutza-interesak eta kobrantza-kostuengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, artikulu honetan bertan aurreikusten den moduan.
5.- Edonola ere, enpresa kontratistak ez badu erregistro administratiboan faktura aurkezteko duen 30 egun naturaleko epea betetzen, interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta 30 egun natural igaro arte, administrazioak faktura ontzat eman eta, hala badagokio, ordaindu gabe.
6.- Bestetik, emandako zerbitzuak kontratuan xedatutakoari egokitzen zaizkiola egiaztatzen duten dokumentuak onartu beharko ditu Administrazioak, ondasunen entrega efektiboaren ondorengo 30 egun naturalen barruan.
7.- Fakturetan ondoko datu hauek jaso beharko dira:

- Erakunde kontratatzailearen identifikazioa.
- Kontratazio-organoaren identifikazioa.
- Kontabilitate publikoarekin loturiko eskumenak dituen organoaren identifikazioa.
- Kontratatutako prestazioaren hartzailearen identifikazioa.

8.- SPKLren 200. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta bertan ezartzen diren baldintzetan, kontratistek, legez ezarritako bideren batetik, hirugarren pertsona bati laga ahal izango diote kontratuaren prezioa kobratzeko duten eskubidea. Lagapen horrek ondorioak izan ditzan eta Administrazioak lagapen-hartzaileari ordaintzeko agindua eman dezan, Administrazioari modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio lagapen horri buruzko akordioa.

41.- Kontratua etetea

Kontratua etenez gero, SPKLren 208. eta 313. artikuluetan eta HAKLEOren 103. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Aldi baterako etete, etete partzial, etete oso edo behin betiko etete kasuetan, etete horren akta egingo da.

42.- Harrera eta berme-epea

42.1.- Harrera eta likidazioa

1.- Kontratuan ezarritako epearen barruan eman beharko du zerbitzua enpresa kontratistak, ezaugarri teknikoen agirian eta baldintza administratiboen agirian adierazitakoari jarraituz.

2.- Enpresa kontratistak kontratua bete duela ulertuko da, xedea oso-osorik kontratuan ezarri bezala eta Administrazioaren adostasunarekin gauzatu duenean. Horri begira, aurkeztutako dokumentazioa edo eskainitako prestazioa aztertuko du kontratuaren arduradunak eta, ezaugarri teknikoak eta klausula administratiboak bete direla uste badu, zerbitzuei harrera egitea proposatuko du.

3.- Kontratuaren xedea amaitu eta handik hilabete bateko epean, kontratuaren xedeari harrera emango zaio ekitaldi formal batean.

Era berean, harrera partzialak egin ahal izango dira bereizita erabili daitezkeen kontratuaren zatien gainean.

4.- Kontratuen exekuzioa segidako traktukoa bada, kontratatutako prestazioa edo kontratuaren epea amaitzean egingo da harrera.

42.2.- Berme-epea

1.- Berme-epea ezaugarrien taulako **11. apartatuan** ezarritakoa izango da edo, bestela, esleipendunak eskainitakoa.

2.- Epe horretan egiaztatzen bada egindako lanetan ezkutuko akats edo okerren bat dagoela, Administrazioak eskubidea izango du kontratistari haiek konpon ditzala erreklamatzeko.

3.- Berme-eperik aurreikusi ez denean, jarduera soileko kontratuak epea betetzean iraungiko dira, baina horrek ez du eragotziko Administrazioak eskumena izatea kontratistari erantzukizuna eskatzeko, ondoren hautematen den balizko edozein ez-betetzerengatik.

Kontratistak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzearen inguruan egiten diren oharren inguruan entzuna izateko.

4.- Berme-epea Administrazioak eragozpenik aurkeztu gabe amaitzen bada, emandako prestazioari lotutako erantzukizunetik salbuetsita geldituko da kontratista, obra-proiektuak prestatzeko kontratuetarako berezitasunen kaltetan izan gabe.

42.3.- Bermea itzultzea

Ezaugarrien taulako **11. apartatuan** adierazitako berme-epea igarotzen bada Administrazioak inolako eragozpenik adierazi gabe, emandako zerbitzuaren gaineko erantzukizun orotatik libre geratuko da kontratista, eta behin betiko bermea itzuli edo deuseztatu egingo da horrenbestez.

43.- Kontratua suntsiaraztea

1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak, SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoez gain, ezaugarrien taulan aurreikusitakoak izango dira.

Kontratuaren suntsiarazte hori HAKLEOren 109. artikuluan eta hurrengoetan zehazten den prozedurarekin bat izapidetuko da, suntsiarazte-prozedura abiatzen den datatik hasita 6 hilabeteko epean, eta SPKLren 213. eta 313. artikuluetan aipatzen diren ondorioak izango ditu.

2.- Gainera, kontratazio-organoak kontratua suntsitu ahal izango du kontratatutako lanerako ezarritako epe osoan ez-betetzeren bat gertatuz gero, edo epe partzialetan gertatutako ez-betetzeengatik epe osoa betetzea ezinezkoa izango dela iritziz gero, betiere kontratazio-organoak ez badu erabakitzen SPKLko 193.3 artikuluan xedatutako zehapenak jartzea.

3.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezke, halaber, honako hauek:

a) Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratuari atxikitako langileei kontratistak soldatarik ez ordaintzea, edo langile horientzat indarrean dauden lan-hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

b) Kontratua arrazoi horregatik suntsiaraztea, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkaritzak eskaturik bakarrik erabakiko da; halere, soldatak ez ordaintze hori jasan duten langileek, SPKLren 130. artikuluarekin bat etorriz, subrogaziora jotzen dutenean, eta enpresa kontratistak zor dituen soldatak kontratuaren esleipen-

prezioaren % 5etik gorakoak direnean, kontratazio-organoak ofizioz erabaki ahal izango du zuzenean kontratua suntsiaraztea.

c) Baldintza-agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasunaren alorrean arau-urratze oso larria gertatzeagatik.
d) Eguneroko jardunean adingabekoekin harremana izango duten pertsonek Gaizkile Sexualen Erregistro Zentraleko ziurtagiri negatiboa aurkeztu gabe kontratua gauzatzeagatik.
e) Kontratu hori hastapenez kontratuan bertan izendatutako langile kopuruarekin gauzatzea ezinezkoa izateagatik.
f) SPKLren 294. artikuluaren c), d) eta f) letretan jasotako arrazoiengatik, herritarrentzat prestazio zuzenak eskaintzen diren kontratuetarako.

4.- Era berean, suntsiarazteko arrazoi izango da, SPKLren 211. artikuluaren babesean, **36.2 klausulan** adierazitako obligazioak eta ezaugarrien taulako **22. apartatuan** kontratuko funtsezko betekizuntzat jasotako obligazioak ez betetzea.

5.- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, elkartekideetakoren bat SPKLren 211.1 artikuluko a) eta b) letretan jasotako kasuan sartzen denean Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten beste enpresei kontratuko obligazioak bete dezatela eskatzeko edo kontratua suntsiarazi dadila erabakitzeko.

6.- Halere, ez-betetzeengatiko zehapenak kontratuko prezioaren ehuneko 5aren multiplo direnean, kontratazio-organoak kontratua suntsitu dadila edo, zehapen berriak ezarriz, kontratuak aurrera jarraitu dezala erabaki ahal izango du.

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

I. ERANSKINA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

* Aldi baterako enpresa-elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa-elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.

ADIERAZTEN DU(TE)

Espediente honi dagokion kontratua esleitzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 1. LOTEA: Urnietako Udal Antzerki Tailerraren (UUAT) kudeaketa.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira[1]:

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Helbidea (kalea, zk., solairua, herria, posta-kodea)

Telefono finkoa **Mugikorra**

[1] Hainbat enpresa esleipendun izanez gero formalki aldi baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa aurkezten badute, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.

KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

Posta elektronikoko helbidea:

Hartzailea:

Jakinarazpena/komunikazioa jasotzeko aukeratutako hizkuntza Euskara ☐ Gaztelania ☐

Lekua eta data:

Sinadura,

II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzaileak EKAB aurkeztea hark lizitazio-prozedura honetan parte hartu ahal izateko baldintza-agiri honetan zehazten diren AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN dituelako aurretiazko froga da.

Enpresen egoera finantzarioari, gaitasunei eta kontratazio publikorako prozedura batean parte hartzeko egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena da EKAB, eta lizitatzaileek agiri hori aurkeztu beharko dute, SPKLren 140. artikuluarekin eta agiriaren formulario normalizatua eta betetzeko jarraibideak ezartzen dituen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Batzordearen Betetze Erregelamenduarekin (EB) bat etorriz.

Kontratazio-organoak bere ahalmenak erabili ahal izango ditu, BAT zk. gutun-azalan aurrez aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, horretarako beharrezko frogagiriak aurkeztu daitezela eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikuluak jasotzen dituen baldintzetan betiere.

Edonola ere, lizitatzaileak EKAB aurkezten badu konpromiso bat hartzen du bere gain, kontratuaren esleipena aldekoa badu EKAB agiriak ordezkatzen dituen frogagiriak aurkeztekoa zehazki, 33.2 klausulan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2.- EKABen inprimaki normalizatua.

EKABen inprimaki normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es.

3.- Jarraibideak:

Dokumentuan adierazten diren baldintza guztiak bete egin behar dira, edonola ere, lizitazio-epearen azken egunean, kontratatzeko debekuak izan ezik, horiek kontratua formalizatu arte segitu behar baitute gutxienez. Administrazioak egiaztapenak egin ahal izango ditu prozeduraren edozein unetan.

Adierazpenak horretarako ahalorde nahikoa duen batek sinatuta egon behar du.

Kontratuaren xedea **lotetan banatzea** aurreikusten denean, eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lote batetik bestera aldatzen badira, Europako kontratazio-agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimen baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote bakoitzeko edo lote multzo bakoitzeko.

Eskatzen den bitartekoen atxikipena kanpoko bitartekoen bidez betetzen badu lizitatzaileak, honek bere EKAB aurkeztu beharko du, eta EKAB bana, gainera, kontratua betetzera xedatutako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batzuk **aldi baterako elkartea** eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta denek dagokien EKAB inprimaki normalizatu bana aurkeztu beharko dute. EKAB inprimaki normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriaz gain, BAT zk. gutun-azalan lizitatzaileek adierazpen bat sartu beharko dute enpresa-talde batekoak diren ala ez adieraziz, baldintza-agiri honetako **V. eranskineko** ereduarekin bat etorriz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **izena emanda** dauden **enpresek** ez dute inskripzio horretan lehendik gaurkotuta dituzten datuak zertan eman, betiere EKABen inprimaki normalizatuan

xehetasun hori adierazten badute. Edonola ere, lizitatzaileak berak ziurtatu beharko du zer datu dauden egiaz jasota eta gaurkotuta eta zer datu ez. Eskatutako datu edo informazioetakoren bat aipatutako lizitatzaileen erregistroetan jasota ez dagoenean, edo horietan gaurkotuta ez badago, inprimakia betez eman beharko da datu edo informazio hori.

EKAB inprimaki normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek ondoko **dokumentu** hauek kontsultatu ahal izango dituzte:

□□2016/7 zk. Erregelamendua (EB), webgune honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

□□Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:

http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

4.- Prozedura honetarako formulario berezia duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

**Eredua egokitu behar da, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa-elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.*

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa. - 1. LOTEA: Urnietako Udal Antzerki Tailerraren (UUAT) kudeaketa.	2021-KULT-003

ADIERAZTEN DUTE

1. Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziako kontratuaren esleipendun gertatuz gero, honako partaidetza-portzentaje honekin:

Enpresaren izena	%

2. Honako hau izendatzen dutela enpresa-elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

3.

Izen-abizenak	

Tokia eta data:

Enpresaren izena	*Sinadura*
Enpresaren izena	*Sinadura*

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

IV.- ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO-ADIERAZPENAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 1. LOTEA: Urnietako Udal Antzerki Tailerraren (UUAT) kudeaketa.

ADIERAZTEN DU

Konpromisoa hartzen duela kontratuaren exekuziorako behar diren baliabide eta bitarteko hauek atxikitzeko:

☐ **Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:**

- Tailerreko zuzendariak gutxienez 80 orduko esperientzia izan beharko du azken hiru urteetan antzerki ikastaroak ematen edo antzerki taldeen zuzendaritzan.
- Ikastaroak emateko izendatzen dituen langileek: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko B-2 ahozko euskara maila dute.

☐ **Bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa:**

Ikastaroak emateko materiala atxikituko da.

Lekua eta data:

Sinadura,

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

VI. ERANSKINA - KONFIDENTZIALTZAT JO ETA AURKEZTU DIREN DOKUMENTU ETA DATUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 1. LOTEA: Urnietako Udal Antzerki Tailerraren (UUAT) kudeaketa.

ADIERAZTEN DU

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**: [2]

1.-

2.-

3.-

……..…

Datu horiek konfidentzialak direla arrazoi hauengatik justifikatzen da:

1.-

[2] Konfidentzialtasun-adierazpenak ezingo ditu bere barnean hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia eta ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia ere. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio-organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzialtzat. Enpresak ez badu berariaz konfidentzialtzat jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzialtzat jo ez den daturik konfidentzialtzat jotzea..

2.-

3.-

……..…

Lekua eta data:

Sinadura,

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

VII.- ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO GAINERAKO ELEMENTUEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	Erreferentzia-kodea
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 1. LOTEA: Urnietako Udal Antzerki Tailerraren (UUAT) kudeaketa.

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA.

Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €/orduko, gehi ..... €, azken kopuru hori BEZaren % .....ari dagokiona. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen direla ulertu behar da: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, baita kontratistaren industri onura ere.

Lekua eta data:

Sinadura,

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

VIII. ERANSKINA.- ZERGA-BETEBEHARREI BURUZKOA DATUAK BAIMIENTZEKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	Erreferentzia-kodea
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 1. LOTEA: Urnietako Udal Antzerki Tailerraren (UUAT) kudeaketa.

Esleipendun gertatuz gero, ondoko aukera adierazten du (gurutze batez adierazi):

- ❑ BERARIAZKO BAIMENA EMATEN DU enpresa honek zerga-betebehar guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa herri-administrazio kontratatzaileari lagatzeko.
- ❑ EZ DU BAIMENA EMATEN enpresa honek zerga-betebehar guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa herri-administrazio kontratatzaileari lagatzeko.

Lekua eta data:

Sinadura,

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

I. ERANSKINA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

* Aldi baterako enpresa-elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa-elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.

ADIERAZTEN DU(TE)

Espediente honi dagokion kontratua esleitzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 2. LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira[3]:

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Helbidea (kalea, zk., solairua, herria, posta-kodea)

Telefono finkoa **Mugikorra**

Posta elektronikoko helbidea:

[3] Hainbat enpresa esleipendun izanez gero formalki aldi baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa aurkezten badute, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.

KULTURNIETA S.A.

IFZ A-20432365

Hartzailea:

Jakinarazpena/komunikazioa jasotzeko aukeratutako hizkuntza	Euskara		Gaztelania	

Lekua eta data:

Sinadura,

II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzaileak EKAB aurkeztea hark lizitazio-prozedura honetan parte hartu ahal izateko baldintza-agiri honetan zehazten diren AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN dituelako aurretiazko froga da.

Enpresen egoera finantzarioari, gaitasunei eta kontratazio publikorako prozedura batean parte hartzeko egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena da EKAB, eta lizitatzaileek agiri hori aurkeztu beharko dute, SPKLren 140. artikuluarekin eta agiriaren formulario normalizatua eta betetzeko jarraibideak ezartzen dituen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Batzordearen Betetze Erregelamenduarekin (EB) bat etorriz.

Kontratazio-organoak bere ahalmenak erabili ahal izango ditu, BAT zk. gutun-azalan aurrez aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, horretarako beharrezko frogagiriak aurkeztu daitezela eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikuluak jasotzen dituen baldintzetan betiere.

Edonola ere, lizitatzaileak EKAB aurkezten badu konpromiso bat hartzen du bere gain, kontratuaren esleipena aldekoa badu EKAB agiriak ordezkatzen dituen frogagiriak aurkeztekoa zehazki, 33.2 klausulan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2.- EKABen inprimaki normalizatua.

EKABen inprimaki normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es.

3.- Jarraibideak:

Dokumentuan adierazten diren baldintza guztiak bete egin behar dira, edonola ere, lizitazio-epearen azken egunean, kontratatzeko debekuak izan ezik, horiek kontratua formalizatu arte segitu behar baitute gutxienez. Administrazioak egiaztapenak egin ahal izango ditu prozeduraren edozein unetan.

Adierazpenak horretarako ahalorde nahikoa duen batek sinatuta egon behar du.

Kontratuaren xedea **lotetan banatzea** aurreikusten denean, eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lote batetik bestera aldatzen badira, Europako kontratazio-agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimen baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote bakoitzeko edo lote multzo bakoitzeko.

Eskatzen den bitartekoen atxikipena kanpoko bitartekoen bidez betetzen badu lizitatzaileak, honek bere EKAB aurkeztu beharko du, eta EKAB bana, gainera, kontratua betetzera xedatutako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batzuk **aldi baterako elkartea** eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta denek dagokien EKAB inprimaki normalizatu bana aurkeztu beharko dute. EKAB inprimaki normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriaz gain, BAT zk. gutun-azalan lizitatzaileek adierazpen bat sartu beharko dute enpresa-talde batekoak diren ala ez adieraziz, baldintza-agiri honetako **V. eranskineko** ereduarekin bat etorriz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **izena emanda** dauden **enpresek** ez dute inskripzio horretan lehendik gaurkotuta dituzten datuak zertan eman, betiere EKABen inprimaki normalizatuan

xehetasun hori adierazten badute. Edonola ere, lizitatzaileak berak ziurtatu beharko du zer datu dauden egiaz jasota eta gaurkotuta eta zer datu ez. Eskatutako datu edo informazioetakoren bat aipatutako lizitatzaileen erregistroetan jasota ez dagoenean, edo horietan gaurkotuta ez badago, inprimakia betez eman beharko da datu edo informazio hori.

EKAB inprimaki normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek ondoko **dokumentu** hauek kontsultatu ahal izango dituzte:

□□2016/7 zk. Erregelamendua (EB), webgune honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

□□Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:

http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

4.- Prozedura honetarako formulario berezia duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

**Eredua egokitu behar da, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa-elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.*

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia-kodea**

Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa. 2021-KULT-003

- 2. LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak.

ADIERAZTEN DUTE

4. Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziako kontratuaren esleipendun gertatuz gero, honako partaidetza-portzentaje honekin:

Enpresaren izena	%

5. Honako hau izendatzen dutela enpresa-elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

6.

Izen-abizenak	

Tokia eta data:

Enpresaren izena	*Sinadura*
Enpresaren izena	*Sinadura*

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

IV.- ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO-ADIERAZPENAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena **NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena **Erreferentzia-kodea**

Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa. 2021-KULT-003

- 2. LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak.

ADIERAZTEN DU

Konpromisoa hartzen duela kontratuaren exekuziorako behar diren baliabide eta bitarteko hauek atxikitzeko:

☐ **Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:**

- Ikastaroak emateko izendatzen den langileak gutxienez 50 orduko esperientzia du azken hiru urteetan espezialitate horretan ikastaroak ematen (kasurik kasu: zur taila, marrazketa eta pintura, eskulanak, joskintza…).
- Ikastaroak emateko izendatzen dituen langileek: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko B-2 ahozko euskara maila dute.

☐ **Bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa:**

Ikastaroak emateko materiala atxikituko da.

Lekua eta data:

Sinadura,

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

VI. ERANSKINA - KONFIDENTZIALTZAT JO ETA AURKEZTU DIREN DOKUMENTU ETA DATUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia-kodea**
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 2. LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak.

ADIERAZTEN DU

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**: [4]

4.-

5.-

6.-

……..…

Datu horiek konfidentzialak direla arrazoi hauengatik justifikatzen da:

4.-

5.-

[4] Konfidentzialtasun-adierazpenak ezingo ditu bere barnean hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia eta ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia ere. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio-organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzialtzat. Enpresak ez badu berariaz konfidentzialtzat jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzialtzat jo ez den daturik konfidentzialtzat jotzea..

6.-

……..…

Lekua eta data:

Sinadura,

KULTURNIETA S.A.
IFZ A-20432365

VII.- ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO GAINERAKO ELEMENTUEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	Erreferentzia-kodea
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 2. LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak.

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA.

Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €/orduko, gehi ..... €, azken kopuru hori BEZaren % .....ari dagokiona. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen direla ulertu behar da: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, baita kontratistaren industri onura ere.

Lekua eta data:

Sinadura,

VIII. ERANSKINA.- ZERGA-BETEBEHARREI BURUZKOA DATUAK BAIMIENTZEKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate-izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	Erreferentzia-kodea
Kultur sustapenaren formakuntza ikastaroen eskaintza eta kudeaketa.	2021-KULT-003

- 2. LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak.

Esleipendun gertatuz gero, ondoko aukera adierazten du (gurutze batez adierazi):

- ❑ BERARIAZKO BAIMENA EMATEN DU enpresa honek zerga-betebehar guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa herri-administrazio kontratatzaileari lagatzeko.
- ❑ EZ DU BAIMENA EMATEN enpresa honek zerga-betebehar guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa herri-administrazio kontratatzaileari lagatzeko.

Lekua eta data:

Sinadura,